

B
A
R
R
E

-

Z
I
R
I
K

BARRE - ZIRIKA



KULTUR ETXEA
ONDARROA

BARRE - ZIRIKA

SARIKETARAKO DEIA
KULTUR ETXEA-ONDARROA

Idaz Sariketak

BARRE TA IRRI SAILLA

Ipuin, kontakizun edo gertaera barregarri ta irrigarriak.
Txisteak eta abar. Al dala Ondarroa edo ingurukoak.

Sariak:

6 foliotik gorakoak:

- 1 saria - 40.000 peseta
- 2 saria - 30.000 peseta
- 3 saria - 20.000 peseta
- 4 saria - 10.000 peseta
- 5 saria - 10.000 peseta

6 foliotik berakoak:

- 1 saria - 25.000 peseta
- 2 saria - 20.000 peseta
- 3 saria - 15.000 peseta
- 4 saria - 8.000 peseta
- 5 saria - 8.000 peseta

GURE GAIK SAILLA

Itxas bizitza, bere itxas lapur, merkataritza, estropada, arrantza, itxas langintza, ondamendi, Kofradiak, arrain-gertapideak, tresnak, arrain-sukaldaritza, itxas iztegi ta abar.

Bialtzeko epea: 1991'ko urtarrilla'ren 31 azken dala.

Sari banaketa: 1991'ko martxoaren barruan.

Epai maila: Kultur Etxeak izentatuko dau eta bere erabagia gora jo eziña izango da. Eskubidea eukiko dau sariak emon barik itxiteko edo ta egokien deritxon eran banatzeko.

Bakoitzak nai aña lan agertu leikez, baiña sail bakoitzean pertsona bakoitzari sari bakarra emon leike, foliotan sailkatuta dagozan taldetan.

Saritutako lanak noiz-nai argitaratzeko eskubidea eukiko dau Kultur Etxeak, egillearen izen jatorra erabiliz.

Lan bakoitzeko lau kopia bialdu bearko dira, zuzenbide onetara: KULTUR ETXEA. Artabide 13. ONDARROA. Lanak lema bategaz bialduko dira, eta beste karta-azal baten bakoitzaren izen eta ezaugarriak.

Lanak sortuak izan bear dira, ez beste izkuntzetatik itzuliak, eta osotasun baten beintzat argitaratu bakoak.



© Ondarroa'ko KULTUR ETXEA
Legerako gordetza: BI-886-91
Irarkola: Flash Composition, S.A. - Bilbao

EPAI MAIKOEN ERABAGIA
KULTUR ETXEA-ONDARROA

Idaz Sariketak

Martxoaren 25ean bildu gara BARRE TA IRRI eta GURE GAIAK Idaz Sariketako epai mahaia osotzen dogun Maribel Aiarza, Joseba Zubikarai eta Luis Baraiazarra.

Sail ezbardinetan agertutako lanak aztertu ondoren, hurrengo sariok erabagi ditugu aho eta gogo batez:

“Barre eta irri” sailean

1. saria: emon barik.
2. saria: Lengus eta Estanga (bigarren sari bana).
3. saria: emon barik.
4. saria: bardinean Urrutxe, Errekondo, Trikitrakeue.

“Gure gaiak” sailean

20 foliotik beherakoetan

1. saria: emon barik.
2. saria: Kortzeleko mamu.

20 foliotik gorakoetan

1. saria: Astilleroko kuadrillaku.

Honela dan ezaugarritzat izenpetzen dogu:



Markina-Xemein, 1991.eko Martxoaren 25ean

Irakurleei

Gaitz da gure lako Kultur Etxe batentzat, idaz-sariketagaz batean, saritutako lanekaz liburu berbera kaleratzea sariak banatzean.

Baiña emen gatoz.

Idaz-sail onetan, irugarrenez.

“Barre ta Irri” atara gendun lenengo urtean.

Urte bete geroago “Barre Algaraka”.

Aurten, bilduma berberari jarraituz, neurri bardiñetan, “BARRE-ZIRIKA”.

Edozetara be gure guraria errian dabiltzan kontu-zar, gertaera barregarri, bat-bateko urteera, erantzun jator, zirikaldi ez-tentsu eta abar entzuten diran lez batu, jaso eta zabaltzea da. Igarri barik gure egitada, jardunaldi eta eguneroko bizitzan sortzen diran ataraldi askoren gatzari urtuten ez lagatea.

Emen datozen kontakizun batzuk “puxikea errementateko” arriskuan ipiñi ziñeikez. Kontuz. Kontulariak “esan” egiten dabe; ortik gerokoa zure kontu.

Beste batzutan agertzen diran izen eta ezaugarriak... idazle bakoitzak daki onetan zeaztasunez jokatu dauan edo ta irudituak diran.

Norbaitek itandu (galdetu) leike gure kale ta kantoietan ain-beste txirrist eta laprast egiten ete dan “aize berdetan”. Ai ene! Askok gura leuke itxasoa beti urdin ikusi, baiña zoritxarrez sarri gertatze da aize berdetan eta olatuen zabunetan brankaz ibili bearra.

Ba dagoz kontularien artean, txitean-pitean (“txitxin-potxin” emen esaten dogun lez) gaztelaniara joten dabenak. Ori gaurko kutsadura izan leike. Eta ba dago arrisku bat; gaztelania txarto erabilteagaitik euskaldunon lepotik barre egiteko izkirimiriak gertatu leikezala batzuk.

Dana dala, emen dago “BARRE ZIRIKA” liburutxu au.

Ondarroa’ko Kultur Etxeak atsegiñez eskintzen dautsue.

Kultur Etxea

Zuzendari: Augustin Zubikarai

"LENGUS" - ANTONIO ARRIZABALAGA BADIOLA

Gose denporako kontuk

Mutil birek pentzaben meixenda bat ettea Asterrika juti: Eurok erun arrañe eta bertan preparata jan.

Marmoki une batzutan naiku ugari ikusten da. Ur-galdu ixaten da. Antxobatan dabizenin sarri etorten da. Beran formire, buruko kapelin tipoku, erro batzuk dindilizke dottule, batzuk txikittuauak bestik baño. Pixu, ba, kilo batetik gora.

Oneik mutil bixok pentzatzue bestin konture meixendati. Marmoka buro andi bi artutxuez eta anduz Asterrika. Sarturi baserri baten. Etxeko andriai esatzen ia aretxeik arrain bixak preparakotzezen. Etxekoandrik, ia zelaik prepara bizin. Egositte. Bañe ondo egosi birdizela, zemat eta su bizixaua eta oba. Sartu zittuzen topiñandi baten, bete urez, eta, benga suai. Mutillak esatzen topiñan tapaik ez irattekoxe-tako be, eurak etorri arte. Ordu erdi barru etorrikorizelata, baruz frontoire pelotan ettea. Frontoitik bueltan mutillak:

– Bueno, ata leike ta prepara beakatza ta orixu erreta botateko.

Tapi kendutzen topiñai, te ure len baño gexa ta arrañipez. Ordun mutillak andriai:

– Ze pasara emen?

– Nik eztotzat ixexin. Bakarrik momentu baten tapi kendutzat –andrik ateso.

– Bañe, esatzuau ba, tapaik ez kentzeko. Biarra auxera – mutillak asarre.

Ordun andrik:

– Parkatu, neuri ixan da kulpi.

Mutillak ederto eiben teatru.

Andrik ordun, gauzi erremexa naixan:

– Jarri, jarri or, da zeoze preparakotzuet.

Tortilla andi bat eitzen. Jabenin, mutillak preuntatzen ia zemat ordaindu bitzen. Andrik ordun:

– Parkatzemotzazue einddera.

– Bueno ba, parkatutera.

Andrik pozik:

– Urrengun be nai zuenin etorri, olakoik ez gazta pasakota. Eskerrik asko ondo porta zazelako. Agur eta ondo ixan.

LENGUS

Gose garaiko kontuak

Bi mutili bururatu zitzairen Asterrikara joan behar zutela merienda egitera: Heurek eraman arraia eta han bertan prestatu.

Sasoi batzuetan marmoka aski ugari izen ohi da. Marmoka bera, "ur-galdua" baizik ez da. Antxoatan eta dabiltzanean maiz agertzen da. Bere tankera, buruko kapelaren antzekoa, erro batzuk zintzilik, batzuk besteak baino handiagoak. Kilotik gorakoak izan ohi dira.

Bi mutil hauek, besteren kontura meriendatzeko asmotan ziren. Hartu dituzte bi marmoka-buru haundi, eta badoaz Asterrikara. Sartu dira baserri batetan eta etxeko andreari bi arrain haiek ateratzen dizkiote prestatu ditzan. Baserriko andreak ez jakin ordea zelan prestatu behar ziren. Mutilek egosita ipintzeko. Su bizitan, asko egosi behar direla. Sartu zituzten lapiku handi batetan, estalkia ipini eta ekin suari. Mutilek esaten diote andreari, Jaungoikoaren izenean ez dezala ontziaren taparik ireki beraiek etorri bitartean. Frontoian pelotan egin ondoan baserrira itzultzen dira:

– Bueno, atera daiteke, eta presta ezazu baratxuria erreta, gainera botatzeko.

Estalkia kentzen diote ontziari, eta ura lehen baino ugariago, baina arrairik ez. Orduan mutilek andreari haserre:

– Zer gertatu da hemen?

– Nik ez diot ezertxo ere egin. Bakar-bakarrik, ikusminak eraginda, tapa zabaldu diot behin –andreak larri.

– Esan dizugu bada, estalkirik ez kentzeko ezertarako. Ederra egin duzu! –mutillek haserre–.

Andreak orduan:

– Barka arren, erruduna ni naiz eta.

Mutillek ongi egin zuten antzerkia.

Andreak orduan, arazoa nolabait konpondu nahiz:

– Eseri, eseri, zer edo zer prestatuko dizuet eta. Tortila bikaina egin zien. Bukatu zutenean, mutillek ea zenbat ordaindu behar zuten. Andreak orduan:


– Egindako okerra barkatzen badidazue, kitto.

– Orduan, barkatuta dago.

Andreak pozik:

– Hurrengo batean ere etorri, horrelakorik ez zait gertatuko eta. Mila esker ongi portatu zaretelako. Agur eta ondo izan.

LENGUS



Mojai gertataku

Bilboko asilun, gixon zarrak eta andra zarrak eotenzin. Or asilun euazen mojak orreik zarrok atendiuten. Iñundik ezeuken launtasunik, da ordun ateik-ate eskin ibilli bir ixateben. Joteben ati, esplikateotzen euran zituaziñoi, da ia ixer baeuken asiloako. Batin erropak, bestin diro apurre, beste baten be jo ta arei esplika enbir asiloko egoeri, ixer baauke ero asilure emoteko... Askoik ez bañe beti jaustezan zeoze. Baten mojjai atea urtetzanak, "eon bixka ten", esatzan da, andik bixkatea amen dator attitte zarraz.

–Auxe akau bakarrik asilururako.

Mojak artu eiben, eta bai erunbe eurakana.

LENGUS

Monjei gertatua

Bilboko asiloan, gizon nahiz emakume zaharrak egoten ziren. Han, monjak ere baziren atso eta agureak zaintzen. Ez zuten inundik diru-laguntzarik jasotzen, eta eskean egiten zuten aterik-ate. Atea jo, heuren egoera azaldu eta ea asilorako emateko ezer bazuten eskatu egin behar. Batean diru apur bat eta bestean arropak, altzari zaharrak eta abar jasotzen zuten. Baina berriro atea jo behar, eta azaldu beti beraien berri. Gauza handirik ez, baina zer edo zer eskuratzen zuten. Behin batetan, monjari atea zabaldu zionak "itxoin apur bat" esan, eta laster batean hemen dator aitona zaharra berarekin dakarrela:

– Hauxe baizik ez dugu asilorako.

Monjek hartu egin zioten, eta bai eraman ere asilora beraiengana.

LENGUS

Semintzako biarra topa nai

Ni sartu nitxan itxosa amar urteaz, treñerun, erramutan. Andik bost urtea feonero. Beste zazpi urtea makiniste. Urte batzuk bajuran, beste asko arrastin: Zortzi egun itxosun, bat etxin. Jun dan amar urtin, motor txiki baten, ura partin: kabra ta txibixak eta abar. Neure denporan ain kalamidade asko pasat, entre gose, egarri, otzak, denporalik, etabar luze bat. Lau alaba eta lau seme asiouz andrik eta bixok.

Eun baten pentza neban semeik itxosa ez bixaltzi iñundik iñoa. Azkanengo pare bat urte, arrastin, barruko kalatik ein genduzen: Goxin jun de iluntzin etorri. Pello panaeruk eukan panadeixi portu ingurun. Itxosakun, antxe artzen gendun eguneroko ogixe. Eun baten Pelloi esanetzan, iru seme trokuk, da irurak naxa, bañe baparebe ia pintxe artuko leuken, panaero ikasteko. Laban ebillen zeozetan paliaz, pali luzia zea baño be! Botaban pali aidin, buelti artu, beixeta beire-beire, ezkerreko ukabille gora altzata diñosta: "Jaungoikuaren izenian, panadero baño obadak mutikuori kate andi bat amarra lepuan da erre kara jaurti tzia". Panaerun biximoru esplikaztan: Urte osun eun bakarripez jai, beste guztik lotan ederto dazen bittartin norbera labin aurrin izerdittan... Errezoi emonetzan.

Andik ezan eun asko pasa, etxeko bentana bateko kristala grak, eumille zati. Kartioiaz tapata eukitten gendun. Abisaakon Mauro ojaleteruai. Alako baten etorri zan. An ebillen kristala ipintten.

– Mauro –esaneutzan–, iru mutil dakaz alkarren segixan, zeuk artuko bazendu pintxe baparabe...

Masilli te kutxilli lagateotxuz, da diñozta:

– Nik estamangu jodiuteakat berroi urtin ojaletero naze-lako.

Onepe beonen esplikaziñoik emoztazen: Amengo masilli, ango benenu, usañak gora eta postura txarrak bera... Arepe berbabaik laga nittun.

Andik zati batea gure koñatik ekarriban pinttori kuartu pinttatea. Urrufiñon semi, musika-bandan jotebana.

– Gure mutillak ezautzeozuz?

– Bai.

– Itxosa ezto txuaz nai bixaldu, da zeuk artuko bazendu pintxe baparabe...

Laga txispoi potun da diñozta:

– Mundun dazenik ofezixoik txarrenak, pintxori eta musikeru. Txarrarik granoipez.

Onepe baeukan beonen esplikaziñoi: Pintturik eta auarasak plemoitta atakaten dabela, da musiki jotzen zazenin mundu guzti dantzan da, abar da abar.

Jangoikuai eskerrak danak dabiz liorrin.

LENGUS

Semeentzak lan-eske

Hamar urte nituela joan nintzen itsasora, treinerroan, arraunean. Handik bost urtetara fagonero hasi nintzen, eta beste zazpi urtetara makinista. Zenbait urte bajurako txalupatan ihardun nuen, eta beste urte mordoa arrastreroetan. Arrastreroetako bizimodua gogorra zen: Zortzi egun itsasoan eta bat etxean. Joan den hamar urtetan, motora txiki batetan aritzen naiz, uda partean, txibiak, kabratxoak, eta abar harrapatzen. Makinabat gose, egarri, neke eta hotz jasan behar izan dut. Emazteak eta biok lau alaba eta lau seme asi genituen.

Egun batetan izan nuen burutazioa, ahalegin guztiak egin behar nituela nire semeetatik inor itsasora joan ez zedin.

Arrastreroetako azken hiru urteak barruko kalatik, portutik hurbilean arrantza eginez, igaro genituen: Goizean joan eta

iluntzean itzuli . Pello okinak portu inguruan zuen okindegia, eta itsasorakoan hantxe hartzen genuen eguneroko ogia. Egun batetan Pellori esan nion hiru seme hazitxoak nituela, eta hirurak nahiago, baina bat bederen har zezala pintxe, okin ikasteko. Eskabide hori bota nionean, labe aurrean ari zen, pala luze bat eskuan. Bota zuen pala, begietara begira jarri zitzaidan, ezkerreko ukabila gora jaso eta haserre hasi zen: "Jaungoikoaren izenean, okin baino hobe da mutiko hori, lepoan kate haundi batez lotu eta erredera jaurtitzea". Orduan, argi eta garbi azaldu zidan okinaren bizimoduaren berri: Urte osoan, egun bakar bat, bera ere ez jai, beste guztiak lotan zeuden bitartean, norbera labe beroaren aurrean izerdi patzetan... Arrazoia eman nion.

Handik egun gutxiren buruan, etxeko lehio batetako kristala grak, eta zatituta geratu zen. Kartoi batez estalirik izaten genuen lehio-zuloa. Mauro linterneroari abisatu zitzaion, eta halako batetan iritxi zitzaigun txanda. Etorri zen eta hantxe ziharduen kristala konpontzen.

– Mauro –esan nion–, hiru mutil ditut elkarren segidan, eta bat bederen zurekin pintxe hartuko bazenit...

Masila eta kutxila uzten ditu, eta honeka hasten zait:

–Urdaila izorraturik dut, berrogei urtetan ojaletero izan naizelako.

Honek ere bere ogibidearen alderdi txarrak eta makurrak azaldu zizkidan. Produktu arriskutsuak erabili behar izaten dituela, hango usain txarrak eta hemengo postura bihurriak... Harek ere gauza guztiak txarrak esan zizkidan eta mutu utzi ninduen.

Handik zati batetara, gure koinatak, margolaria ekarri zuen gela pintatzera: Urrufiñoren semea, musika bandan jotzen zuena. Honi ere honela bota nion:

– Gure semeak ezagutzen dituzu?

– Bai.

– Itsasora ez ditut igorri nahi, eta zeuk hartuko bazenu bat, pintxe...

Txispoia pote gainean utzi eta begira-begira hauxe esan zidan:

– Munduan dauden ofiziorik txarrenak izendatuko dizkizut: Margolaria eta musikajolea.

Honek ere bere lanbideez bazuen zeresanik: Margoak eta auarrasak birikak hondatzen dituztela, eta musika jotzen ari zaren bitartean, berri, mundu guztia dantzan eta zu hantxe urkatzen eta inbiditan, abar eta abar.

Jaungoikoari eskerrak, danak geratu ziren lehorrean.

LENGUS



Gixon zarran estimaziñoi

Anjel pinttorik neuri esandaku. Au kontaztanin, berak laroi bat urte eukikozittun, da nik berroi. Kresala tabernan batu giñan txikitotxu bana hartzen. Diñotzat:

– Ze Angel. Zartzen asiga?

– Bai, egixe. Da zarrak estimaziñoi gitxi, silla zarrak baño gitxia. Silla zarra ibiltten da etxin iñonaiezta, saka bat eta saka bestik, da atzanin eruten dabe ganbara. Aittitte zarra, ostea, bein olaik asittakun, saka bata eta ten bestiik, hospittalea. Zeozeattik egurre falta etxin eta orduntxe akordaten da silla zarrak. Sue enbir eta eskerrak emon silla zarrak, "beonei eskerrak" esan da. Gixon zarrak sue etteko be balixo eztabelez, inor be akordabez.

LENGUS

Zaharren estimazioa

Angel pintoreak esan zidana. Garai hartan berak izango zituen laurogeiren bat urte, nik, aldiz, berrogei inguru. Kresala tabernan batu ginen basoerdi bat jotzen. Honela galdetu nion:

– Zer Anjel, zahartzen hasiak gara?

– Bai, hala da. Zaharrak, egia esan, estimazio gutxi du, aulki zahar batek baino gutxiago. Etxean aulki zaharra, tratu txarrean erabiltzen dute, bultza bata eta bultza besteak, eta azkenean ganbaran bukatzen du. Agure zaharra, berriz, behin horrela hasitakoan, hospitalera. Inoiz egur faltan edo, orduntxe etortzen da burura aulki zaharra. Besterik ezean, sutarako behinik behin balio izaten du. Agure zaharraz berriz, ez da inor oroitzen, ez bait du horretarako ere balio.

LENGUS

Senar-emazte gaztik

Lekattoko senar-emaztik gazte-gaztik. Gixona nabe-ganti, zortzi bat illabete eindde gero alla zin Muselea. Segixan andriai telefonotik eitzan diar. Esatzan, ba, zelan allarizen Muselea, ondo, da arazo batzuk dakazela, bañe, sin falta, allakorala gabeako etxea, Lekattoa. Andrik diñotza:

– Bai, ori biajioi egun bi ero iru atzeatuko bazendu, obeto.

– Zeatxipa?

– Txaboli pintxara ta txoirik ezileike sartu.

LENGUS

Senar-emazte gazteak

Baziren Lekeition senar-emazte gazte batzuk. Senarra itsas-gizona zen. Zortzi hilabete itsasoan igaro ondoren heldu ziren Muselera. Berehala emaztearekin hitzegiten du telefonoz: Muselera ondo ailegatu zirela, bazituela han gauzatxo batzuk egiteko, baina gauerako iritxiko dela etxera eta lasai egoteko. Orduan emazteak:

– Hobe zenuke bidaia hori hiruzpalau egun atzeratuko bazenu.

– Zergaitik diozu hori?

– Izan ere txabola pintaturik dago eta txoriak ez du sar-tzerik.

LENGUS

Marari bakarra

Don Bittoñon txaleta, aspaldiku, arta birin euan. Txaleta, zea baño dotoria, jardiñ de guzti. Jardiñin euken marari arbola bat.

Epoka baten, an txaletin bixi zan Don Bittoñon ama, Doña Monike. Eta Mirentxuko Miren kixara.

Alako baten, marari arboliai, marari bakarra agertuakon, Doña Monike pozik ebillen bere mararixorreaz. Siestatik altzatezanin, aide beti mararixai bixitxi ettea.

Ordun denporan Mirenei jutengakon aizti, Nekane, mandatuk eta etten laguntzea. Onak ikusibanin tamaño ederreko maraixe arbolan, arturau maraixoi eta nun presentatengakon Mirenei marari jaten. Mirenei seirun etorriakon burure marari bakarra:

– Nundik artuzu ori? –Mirenek azelerata–.

– Arbolan –Nekane–.

– Attiaren, semiaren, aurixera biarra eizune! Auntxe gure azkana! Ekarri maraixe naizun tokittik.

Nekane sustata. Kontatzan Mirenek arbolako marai bakarran istoixi. Bixak geatuzin ze asma eztakixela.

Mirenek diñotza:

– Aide Orixo Potoneko denda, erosi antxe marai bat eta ekarri arin. Ekarriban maraixe, lengun itxuraku. Mirenek ipiñiban erosittako maraixe arbola azpitan.

Doña Monike, betiko morun, siestatik altza zanin, maraixe ikustea. Arbola beatuban, betiko tokire, eta marairipez. Falta, maraixe!

– Miren, Miren!! –aren diarrotsik–.

Miren, aringainge baten. Alla zanin, diñotza señoirik:

– Emengo maraixe zeñek jan dau?

– Iñopez. Ia beangañin jausitteran!

Miren asten da bille, ta bi konta orduko topaban.

– Amen da.

Emotzan señoirai, eta segixan jan arek, aluk alakuk, Orixo Potonin erosittako marari ederra.

LENGUS

Udare bakarra

Don Bitorianoren txaleta, aspaldikoa guztiz, Arta bidean. Txaleta, benetan dotorea, jadin eta guzti. Jardinean udareondo bat zuten, bakarra.

Garai hartan, Don Bitorianoren ama, Doña Monika bizi zen txaletean. Eta Mirentxuko Miren, neskame.

Halako batetan, udareondo bakarrari, udare bakarra sortu zitzaion. Doña Monika pozik zebilen bere madari bakarraz. Siestatik jeiki bezain pronto, egunero egiten zion bisita madariari.

Sasoi hartan, Mireni ahizpa joaten zitzaion enkarguak eta egiten laguntzera. Ahizpak madari ederra arbolan ikusi zuenean, besterik gabe, hartu eta ahora. Non agertzen den Mirenen aurrean udare jaten. Mireni berehala etorri zitzaion burura udare bakarra:

– Non hartu duzu hori? –galdetzen dio ahizpari.

– Arbolan –ahizpak–.

– Aitaren eta semearen, oraintxe egin duzu ederra! Gureak egin du! Atera madaria nahi duzun tokitik.

Nekane beldurturik. Kontatu zion Mirenek, Nekane ahizpari, udare bakarraren istorioa. Biak geratu ziren zer egin ez zekitela. Orduan Mirenek:

– Segi azkar Orixo Potoneko dendara, eros ezazu hantxe udare bat eta ekarri agudo. Arbolakoaren gisakoa ekarri zuen. Mirenek udare erosia zuhaitzpean ezarri zuen.

Doña Monika, ohitura zuenez, siestatik jeiki ondoan, madaria ikustera zuzen. Bista jaso zuen arbolara, leku jakinera, eta udarea falta.

– Miren, Miren! –hasi zen deihadarrez–.

Miren korrika bizian. Heldu zenean, Doña Monikak:

– Nork jan du hemengo madaria?


Ez du inork jan. Ea eroria den?

Mirenek ez zuen denbora luzerik behar izan. Lipar batean aurkitu zuen:

– Hemen da.

Señorari eman zion eskura. Baita honek laster batean jan ere, Orixo Potoneko dendan erosiriko madari ederra.

LENGUS



Tiadoro arotzan kontu

Tiadoro zan arotz ona. Saldupen eukan astilleru. Asi zan batelak etten, gerua ta andixauak motorra sartzeko. Tiadorok ume asko eukan, bañe, biarreako iñorbez. Beste arotz bat eukan berai launtzen. Txalopai peateko burdiñak Bolunetik gastaten zittun. Txalopak ein bai, bañe batzuai ezin kobrata ibiltten zan, da berape ezin paga Bolunekuai. Boluneko neski faturiaz lantzin-lantzin arotzana. Tiadorok ezin paga, berai be eztotzen pagaten da. Ta olatxeik segi beti aurrea.

Leon Totu (120 kilo baeukazen) ezkondu zan onetxeaz neskioneaz. Andra gaztik gixonai emotzazen euran goraberrak, faturak ezin kobrata dabizenok eta abar. Leon Totuk diñotza andriai: "Benga faturak, laste kobrakottuaz da".

Leon andu Tiadoroana astilleure. Tiadoro axkori az ebi-llen trongu labraten. Leon Totuk diñotza:

– Eunon Tiadoro.

– Bai zeuri be.

– Ba emen dakat fatura bat, ainbeste denporan paabaik dakazute. Auxe kbratea nator.

Au entzubanin, Tiadorok Leonei diñotza:

– Aiba axkori.

Leonek artuban axkori. Tiadorok trongo gañin kokota ipiñi eta ostabe diñotza Leonei:

– Kendu niri kokota, ori entzuti baño naxat eta.

Ori ikusi banin Leonek, laga axkori te popaik etxea. Etxea alla zanin, andriai airin botatzazen fatura guztik.

LENGUS

Teodoro zurginaren kontua

Teodoro zurgin trebea zen. Saldupen zuen astileroa, eta hantxe egiten zituen batel txikiak, eta gero handiagoak ere bai, motorrak eta sartzeko. Teorodok haur ugari zuen, baina lanerako ezta alerik ere. Beste zurgin bat zuen laguntzailatzat. Txalupai atxikitze burdinak, Bolunetik ekartzen zituen. Teodorok atergabe egiten zituen txalupatxoak, eta saldu ere bai agudo asko, baina inondik inora ezin kobratu; dirurik eskuratu ezin. Eta jakina, berak ezin, bada, ordaindu Bolunekoei. Boluneko neska txitean-potean joaten zen fatura hartuta Teodororengana, kobratzeko asmotan, baina kale beti. Martxan jartzen ez zen katea zen. Horrelaxe, oker xamar zihoazen gauzak aurrera.

Leon Totu (Leon Lodia: bazituen 120 kilo) Boluneko neska horrekin ezkondu zen. Andra gazteak kontatu zizkion senar berriari beraien gorabeherak, Teodorengandik ezin zuela inondik inora faturarik kobratu, abar eta abar. Leon Totuk honela diotsa egun batez bere emazteari: "Nik hori berehala kobratuko dut eta emaidazu fatura".

Leon badoa Teodororengana astilerora. Une hartan Teodoro enbor bat labratzen ari zen aizkoraz. Leonek honela agurtu zuen:

– Egun on Teodoro.

– Bai zuri ere.

– Denbora luzean ez omen duzu ordaintzen eta hemen dakarzut fatura bat. Ni behintzat kobratzeko asmotan nator. Teodorok Leonen hitzak entzun zituenean, honela ekin zion:

– Tori aizkora.

Leonek, Teodorok eskaini zion aizkora hartu egin zion. Teodorok enbor gainean bere lepoa kokatu eta honela esan zion Leoni:

– Gehiago horrelakorik entzutea baino nahiago dut eta moztuiezadazu lepoa.

Elantxobeko zapateru

Elantxobeko zapatero bat jun zan Kijonea, an gexa irabaziko balata. Kijonen asi zan zapata-konpontzen, eta ondo ixun. Jai egunetan pasiaten ibiltxi gustateakon. Egun baten jun zan Muselea. Merkante pillu egoten zan an. Bat ikusi ban kargata, 15.000 toneladako bat. Ingurure alla zanin, gixon bateaz tope eiban. Preuntatzen ia salirako ero euan a barku. Bestik erantzutzan baietz, kargata listo dala bañe kapittanik ezin ddabela topa. Ordun eiban zapateruk Elantxobea etorri. Amen kapittan bateaz berba eiban, da esatzen Muselen zelan dan barko bat kargata salirako prest, kapittanik ezin topata. Onek esatzen zapateruai ia bera jungo littaken. Nonbramentu eukiko baleu baietz erantzutzan zapateruk. Juntzin komenentzixa nonbramentu kamufletea. Zapaterun ixenin ipiñi ben da listo.

Zapateru andu nonbramentuaz Muselea. Kapittanak emotzazen instruziñoj batzuk. Jun zan ofeziña, arreglaben asuntu eta enbarka. Urteben itxosa. Pilotuk kapittanai ia ze runbo artuko daben. Kapittanak:

– Beti usateozune.

– Ondora.

Alla zin New York-era. Baxe andixera. Barko asko eoten da fondeata. Neuri be gertaazta an eoti. Baxa alla zin, pilotuk preuntatzen kapittanai ia zemat ankla erria birdizen. Kapittanak preuntatzen ia zemat ankla dazen barrun. Pilotuk sei dazela.

– Erria danak –esatzen kapittanak.

Pilotu arrittute geatu zan, ze jenealin bat ixaten zan. An euazen merkante pillu bakotxa bere fonduaz. Gaberdixan sartzen da denporali, merkante guztik tatarrez bazterra joarte.

Batzuk atxeta, beste batzuk mollin kontra. Txikotak soltata, katik etenda, merkante guztik trabes. Zapaterun merkantik zirkinipez! Kriston esitu.

Bueltan onutz etorri zanin, konpañik ainbeste mille oberleko emotzazen. Aur zapateru aberastute.

LENGUS

Elantxobeko zapataria

Elantxobeko zapatari bat Gijonera joan zen, han gehiago irabaziko zuela eta. Gijonen hasi zen lanean eta ez zihoakion batere gaizki. Jai egunetan paseatzea zuen atsegin. Eta egun batetan Muselera joan zen. Garraio-untzi ugari zegoen han. Bat leporaino zegoen kargatuta, 15.000 toneladatako untzia. Inguratu zenean gizon batekin egin zuen topo. Galdetu zion ea unti hura itsasorako prest zegoen. Besteak, baietz, kargatuta, listo zegoela, baina ez zuela kapitainik. Orduan zapataria, zuzenean Elantxobera. Hemen kapitain batengana jo zuen, eta azaldu zion Gijonen unti bat kargatuta zegoela irtetzeko prest, baina kapitaina falta zitzaela. Kapitainak zapatariari egin zion gonbitea, ea bera joango litzatekeen. Nonbramentua izanez gero joango litzatekeela, zapatariak. Komandantziara joan ziren sasi-nonbramentua egitera, konpondu zuten arazoa, eta listo.

Nonbramentua eskuan, zapataria badoa Muselera. Kapitainak argi adierazi zion egin behar zuen guztia. Bulegora joan zen, behar ziren paperak egin zituzten eta untziratu zen gure zapataria kapitain. Itsasoratu zirenean, pilotuak galdetu zion, ea zein runbo hartuko zuen, eta kapitain berriak, beti usatzen zuena hartzeko. Pilotoa konforme.

Heltzen dira New York-era. Han ikaragarritzko bahia dago. Untzi ugari egoten da fondua botata. Ni neu ere izanda nago. Bahiara ailegatu zirenean pilotoak diotsa kapitainari ea zenbat aingura erria behar duen. Kapitainak galdetzen dio ea zenbat aingura diren untzian. Pilotoak, sei direla. Orduan kapitainak:

– Erria itzazu denak.

Arazorik ez zenean, bat baizik ez zuten erriatzen; eta kapitain berriak sei anklak botatzeko esan zionean pilotua harriturik zen. Han, inguruan zeuden, beste garraio untziak, bakoitza bere aingura botata zuela.

Ordea, gauerdialdera, ustekabean, ekaitz ikaragarria sartu zuen. Txikotak askatuta, kateak etenda, han zebiltzan unti guztiak trabes, arrakasta, batzuk arkaitzetara eta beste batzuk kaiaren kontra. Gure zapatariaren untzia, aldiz, hantxe, tinko eta trinko, erroak barna dituen pago zaharraren antzo, zirkinik ere egin gabe. Arrakasta handia izan zuen.

Honuntz etorri zenean, konpainiak sari handia eman zion: milaka ogerleko beretzat. Horra nola aberastu zen gure elantxobetar zapataria.

LENGUS

Geure seme batei gertatatu soldautzan

Geure seme bat jun zan soldautza. Da lelengo instruzi-ñoi, kursilluk eta abar. Erlijiñoi emoteko uni allara ta, "a formar", danak. Erlijiñoi aldetik ia zeleitazen. Gure mutillak eukan albur bermiotar bat. Tenientik preuntatzen gure mutillai ia kredu errezatzen baekixen. Baietz. Esaban ondo. Bermiotarrak be preuntatzen. Onek erantzutzan berak euskeraz dakixela. Bueno ba errezateko. Gure mutillai esatzen tenientik atendiuteko ondo, zelan esaten daben. Auxe ixan zan bermiotarrak errezaban kredu:

"Tomas tonto jateko pronto, attre nun dago, soluan, ze eragiten, artua eragiten, artua zetako, olluarentzako, ollua zetako, arrautzi etteko, arrautzi zetako; abadiantzako, abadi zetako, mezi emoteko, mezia zetako, purgatoxun dazen arimantzako".

Amattubanin, tenientik gure mutillai ia zelan esaban. Onek, ondo esan dabela, barreik ezin auantata. Zekule ezeidau berak estutasun gogorruarik pasa.

Kredu ezeikixenak ezeukan kalea urteteik, andik eta ikasi arte. "Tomas tonto" esan da bermiotarra salbo, geure soldaumutillan launtasunaz.

LENGUS

Gure seme bati jazotakoa

Seme bat soldaduzkara joan zitzaigun. Lehendabizi, instruzioa, eta abar. Ondoren heldu zaie erlijio azterketa egiteko garaia. Erlijio maila neurtu behar zieten. Gure mutilak bermeotar bat zuen aldamenen. Tenienteak galdetu zion gure mutilari ea kredoa erresatzen bazekien. Baietz. Ondoren, bermeotarrari. Honek, euskaraz baietz, bazekiela. Ba esateko. Tenienteak gure mutilari, belarriak erne izan ditzala ea bermeotarrak ongi esaten duen. Hona bermeotarrak ahots ozenez bota zuen kredoa:

"Tomas tonto, jateko pronto, atte nun dago, soluan, zer ereiten, artu ereiten, artua zetako, oiluarentzako, oilua zetako, arrautza eiteko, arrautza zetako abadearentzako, abadea zetako mezia emateko, mezia zetako, purgatorioko animentzako".

Amaitu zuenean, tenienteak gure mutilari, ea ondo esan zuen, eta honek baietz, zuzen esan zuela, baina, guzti hau farreri heutsi ezinik. Larrialdi latza pasa omen zuen.

Kalera irten behar zuenak kredoa ikasita behar zuen. Zein ongi libratu zen bermeotarra "Tomas tonto" esanda, gure mutilaren laguntzaz, noski.

LENGUS

Lau andran lapurreti

Gerra ostin, oneik androk, ezkontute umikin bixizin. Gixonak eztotzen gexeirik irabazten, ordun asizin arrasterutako almazenetan biarrin. Ango biarra ixaten zan, pareji etorrenin arrain guzti klasifika da manipula. Emakumintzako ezan ain biar ona, da gañea gabeko biarra, alba ingurarte. Irabazixe gexeirik ez. Tamañun. Jateko arrain batzuk emoteotzezen. Asko ez au be. Lauren artin pentzaben leatzxu bana osti saltzeko. Entsegire ikasiben maniobri. Erositzalli be segixan topaben: Jose Mari Pakoneku, Bar Acuarioko nausixe. Albarutz biarra amaitzeben, onuzkun diar etxeotzen Jose Mariai,, bajaten zan bera ta segixan kafesne ederra galletakin emoteotzen da kolorik gorri-gorri, leatz-ditu artu te dzat entrada batea partilli ettea. Baraz partilli etten, masixin, de nun botateotze baldakara ure. Busti-busti eindde etxea. Bañe kristonak entzun zittuzen ure botabanakpe. Alanbe, pozik ebizen euran leatzakin. Alla zan Gaxumi! Pazkuko konfesiñoirik einbaik ezan inorbe geatzen. Batek diño ze: "Auntxe gaz galdute. Pedro Boteron galdaran gaz gu. Guk einddouzen leatzlapurretak zein abarek parkatukozkuz?". Eune jun da eune etorri gauzak ateso ebizen. Eun baten anduz laurak elixa. Lauretatik balientiena zanak diño ze: "Neu jungona lelengo" (on, lauretatik bixidan bakarra auxera). Andu konfesanaxure. Don Manuel abari? Lelengotik asiakon: "Nik, Jaune, beste pekatotik eztakat, bañe leatz-lapurretak andixak einddouz". Esplikatzazen, nun zelaik, zetako, tabar. Konfesorik preuntatzen ia armadori zelaik dabilen. Andrik:

– Ondo baño obetua.

– Ori ezta pekatu, da segi aurea. Da bat gexauatxipe ez billurtu –esaten abarik.

Beste irurak an euazen billurtute. Segixan junzan curakana. Diñotzeze: "Etxaz dakau".

Laurak eiben konfesiñoi eta pozik. Len bana ostebena, andik aurea irune.

Egun batzuk pasazin eta akordagakuen Don Manuelei erregalo bat etti: "Gu orretzek salba gattu, bestelaik inpreñun be ezkeunkan sarreraik".

Andik laste besiu pillu ekarriban parejik, da eiben besiu bana artu, Don Manuelentzako erregalu. Almazenetik etxeruzkun joben ati Don Manuelenin. Urtetzen arrebik. Pasa zittun barrure, emotzezen besitxuk, lau besiu. Eurai be emotzen arrebik armozo ederra, ta danak pozik.

LENGUS

Lau emakume lapurretan

Lau emakume hauek, gerra ostean, umeak zituzten erruz, eta larri eta eskas bizi ziren. Senarrek ere gehiegi irabazten ez eta, arrastreroetako almazenetan hasi ziren lanean. Lan hura ez zen samur-samurra izaten, hots, txalupak zetoztenean, goizaldera gehienetan, zekarten arraina sailkatu eta gobernatu. Alba ingirura artekoa izaten zen saioa. Irabazia, ordea, apurra eta laburra. Nagusiak etxerako hadina arrain ere ematen zien, baina hau ere gutxi. Lauren artean pentsatu zuten legatzxu bana edo ohostea. Pentsatu eta bete. Berehala ikasi zuten maniobra. Eroslea ere ez zuten nekez aurkitu: Jose Mari, Bar Acuario-ko nagusia. Eguna zabaldu orduko lana bukatzen zuten eta portutik etxerako bidean Jose Mariri dei egin, hau jeisten zen behera, kafesne bero ederra gaileta eta guzti prestatu, eta andrak pozik. Andrak, ondoren, koloreak gorri-gorri, atari batetan sartu eta diru partiketa egitera. Partila egiten ari direla, non etortzen zaie ur freskoa burutik behera. Blai-blai eginda etxera. Baina bota zuenak ere ederrak entzun behar izan zituen.

Denak ziren pozarren, ez bait zen inolako okerrik. Baina heldu zen Garizuma! Orduan ziren kontuak. Pazkukoa egin gabe ez zen inor libratzen, eta aitortzera nahita-nahiez joan behar. Beraien artean: "Orain bai galduta gaudela. Inpernuko sugarretan gabiltza. Egin ditugun legatz-lapurretak zein apaizek

barkatuko ote dizkigu?" Eguna joan eta eguna etorri gauzak larri zeuden. Egun batez, laurak batera badoaz elizara. Lauretatik ausartenak dio: "Neu joango naiz lehenbizi" (une honetan, lau haietatik bizi den bakarra). Badoa konfesionariora. Apaiza, Don Manuel. Itzulingururik gabe, zuzen hasi zitzaion: "Nik Jauna, beste bekaturik ez dut, baina legatz-lapurretak egin ditut haundiak". Azaldu zizkion apaizari zehatz-mehatz lapurretaren gorabehera guztiak, non, nola, zergatik eta abar. Apaizak, txalupa-jabea ea ondo doan bere negozioan. Andreak, baietz, txalupek arrain asko ekartzen dutela eta jabeari negozioa ongo dohakiola. Apaizak orduan:

– Hori ez da bekatu, eta segi aurrera horrela. Eta beste legatz bat gehiago hartu arren ez bildurtu.

Beste hirurak han zeuden, laugarrenak zer berri ekarriko. Zuzenean joan zitzaion: "Zorioneko gara".

Laurak aitortu ziren eta pozik. Lehen, bana lapurtzen bazuten, aurrerantzean hiruna.

Egun batzuk igaro ondoren, Don Manueli oparia egitea bururatu zitzaion: "Inpernuko txingarretatik horrexek salbatu gaitu, eta merezi du".

Luza baino lehen, txalupek bixigu mordoa ekarri zuten. Zer egin zuten? Bixigu bana hartu, Don Manuelentzako oparia. Goizaldera, lanetik etxeruntzkoan jo zuten atea Don Manuelenean. Honen arrebak zabaldu zien atea. Pasa zituen barrura. Lau bixigu oparizat jaso ondoren, prestatu zien gosari ederra, eta denak pozik.

LENGUS

Iru mutil eskola-launak

Iru mutil gazte, eskolan ebizela ein zin laun andi-andiak. Toki guztittan alkarreaz ebizen. Eskolako upiñak amattu zinin irurak komertziante asi zin. Ogei urte pasa ben alkar ikusibaik. Eun baten Bilbon irurak tope alkarreaz. Batu zin eta eitzezen alkarrei ongietorrixak demazak. Zelebra enbibelata pentzaben bazkai eder bat etti. Jun zin hotel batea, irurak jarri zin mai baten. Kamareruk ekarritzen karti. Aparta ben, onenetik, txanpan da guzti, kafe kopa eta puro. Dana, konpleto, ixebe ezeben falta ixan.

Diar eitzen kamareruai kontu ekarteko. Maxe jasoban kamareruk. Emenda kamareru faturiaz. Benga neuri, esatzen batek, au neuk pagakot. Zuk eztozu pagako, neupañ. Irugarrenak diño "Ez zuk eta ez zuk pagakozue". Asiri eztabaidan irurak. Kamareru eurai beire. Atzanin kamareru juten koziña, toparau topiñ andi bat, bete urez, eta nun eruten dau iru launak euazen maire. Kamareruk diñotze:

— Ia ke irurok naizuen paga, sartu irurok uretan buru, da lelengo ataten dabenak, aretxek pagakorau. Konforme? Irurak baietz. Iru kontatakun sartu: Bat, bi, iru. Dzast buru irurak. Irurak itto.

LENGUS

Hiru mutil eskola-lagunak

Eskolan elkarrekin ziharduten hiru mutil, elkarren oso lagun egin ziren. Nonahi eta beti, elkarrengandik hurbil. Baina, eskolako garaia ere bukatu zitzairen, eta elkarrengandik banandu egin behar. Hirurak ogibide bera hartu zuten: Biajante. Hogei urte pasa zituzten elkarren berri jakin gabe. Egun batean, ordean, hara non egiten duten Bilbon topo elkarrekin. Ez duzu ikusi, nolako ongietorriak eta besarkadak elkarri! Gertakizun hura ezin utzi zitekeela ospatu gabe, eta bazkari eder bat egitea erabaki zuten. Hotel batetako jantoki batean jarri ziren bazkaltzen. Zerbitzariak erakutsitako paperetik onena hautatu ondoren, sekulako bazkaria egin zuten, txanpain, kafe, kopa, puru eta guzti. Hantxe bai ez zela deus falta izan!

Zerbitzaria deitu zuten. Baita kontua eskatu ere. Mahaia jaso ondoren, hemen dakar zerbitzariak kontua zehatz-mehatz idatzia. Emaidazu kontu hori, neuk egin behar bait dut, esan zion zerbitzariari, hurbilen zegoenak. Zuk? Bai zera, neri tokatzen zait, dio bigarrenak. "Ez zuk, ezta zuk ere", hirugarrenak. Sekulako eztabaidan hasi ziren, haserre bizian. Zerbitzaria badoa sukaldara, hartzen du ontzi handi bat, bete urez eta hantxe dakar hiru lagunak zeuden mahai gainera. Honako konponbide hau eskaini zien:

—Hirurok ordaindu nahi duzue gero, bakoitzak sar dezala uretan burua, eta lehenik ateratzen duenak ordaindu beharko du bazkaria.

Hirurak ziren konforme. Zerbitzariak hiru kontatu eta hirurek batera sartu zuten uretan burua. Atera, ordean, inork ez zuen atera, hirurak ito bait ziren. Horrelaxe bukatu ziren hiru lagun haien ordaintzeko ahaleginak.

'ESTANGA' - JOXE MARI URTEAGA GARMENDIA

Bultzi leihotik kresal usaina

Kontatzera noakizuen bidai honek piztu zuen nire barnean herri baten izaeraren alde alai eta umoretsua ezagutu eta sakontzeko desioa. Bidai luzea nuen egin beharrekoa, gaur egun hobe ezagutzen dudan Arta puntat-ik hasi eta Kaminazpirarako ibilbidearen luzaeraren pareko. Baina ez zen nirea herri berean egin beharrekoa izan; Herritik irten eta Espainako puntaren-puntarainokoa zen nirea. Ikasketak amaitu eta ditxosozko soldadutzari aurre egiteko unea heldu zitzaidanean, ahalik eta azkarren amaitzeko asmotan, ahalik eta arinen heldu nahi izan nion adarretatik arazoari. Ez genuen, garai hartan, gaurko indarrez ezagutzen "objezio" hitza. Baina hau beste historio bat da eta ez du gaurkoarekin zerikusirik.

Lehentxeago hasi naizenez, erreklutamenduko kuartelean emandako bidai-txartela eta etxean erdi-betetako petate berdeaz, badaezpada ere aurretik ilea motz-motz eginda, jarri nintzen esperoan Bilboko geltokian denborapasarako aldizkari bat erosi ondoren.

Megafoniatik deia egin zutenean mugitu nintzen, ozenki adierazitako andenaren zenbakia begiz jo eta gerturatzeko.

Ba zen jende gehiago. Jubilatutaldea bat be opor-aldiren baten usainean bildua zirudien. Petatedunak be ikusi nituen, baina beraiengana hurbiltzea baino nahiago izan nuen arin igo eta konpartimentu batean bakarrik sartzea. Heldu arte ez nuen soldadurik ikusi gura.

Alboetako konpartimenduak aurretik ikusitako jubilatuen abots urtetsuak bete zituen. Laister ireki zuten ni nengoenekoaren atea.

– Gutzako lekoik pai? – galdetu zidan euskeraz, irrifartsu, haizeak saretutako arpegiz, agure batek.

– Bai libre da.– neuk, horrelako bidai batean bakarrik joatea ezinezkoa dela ta jakinaren gainean.

Pare bana gizona ezko ta andrazko osatu zuten, batuketa azkar batean, urtetan milaren laurdena pasak izango zituzten laukotea.

Berriketan, irrifartsu eta umoretsu agertu zitzaizkidan lauak. Kostaldeko euskeraren kutsua lehen esaidietatik nabaritu nien. Kontrakzio ta laburduraz jositako hizkera hark ez zuen dudarik eragiten, ondarrutarrak izan behar zuten.

Lehen be entzuna nuen ondarrutarra. Andra Maritan joan ginen, behin baino gehiagotan, arrantzale egunerako berderen, Ondarruko jaietara. Inorante xamar, abuztuko beroari aurre egiteko asmoz, niki txuriaz lehen urtean. Ez gehiago. Ordutik aurrera, abuztuko zerua eta itsasoa lez, urdinez jantzitako eguna izan zen guretzako be. Kanpotarrontzat irekiak aurkitu genituen, baita lagunak egin be berehala.

Trenak burdin-bideari ekin zion. Hasieran apur bat kostata, baina, entzumena egin eran, laister hasi nintzen solasaldi guztia ulertzen, ardaoz lagunduta, jaxetan ondarrutarrez betetako hiztegi-zakua bergogorutzen.

– Ze, a servir a la patria? – bota zidan gizona ezkoetan zaharrenak begi bat pikaroki itxiz.

– Hala esan beharko.

Hasierako nire esaldi labur eta neurtuak luzatzen eta bizitzen joan ziren eskaintzen zidaten zabaltasunaren ordainez.

– Soldadutzarako deitu zituzteneko kontakizun ugaritarako aitzaki aproposa aurkitu-zuten nigan. Gerra aurrekoak batek, gerra ostekoak besteak, ba zuten zer konta. Andrak be entzule, hasieran, nahiko barre egin genuen ondarrutar batzuren gertakizun xelebreen kontura.

Laugarren kontakizunean edo, nire afizioak eraginik, pe-tatea ireki eta grabagailutxoak jarri nuen martxan. Izan be,

hango eta hemengo kontakizunak jaso eta aztertzea izan baitut gogoko beti.

Inaki deitutako ondarrutar bat joan ei zen Cadizera soldadu. Itsas-ertzeko mutil gehienen antzera Marinara hura be. "Juan de la Poza" deitutako txalopan, komandantearen zerbitzari izan zen. Maljenio edo erre xamarra omen zen komandante hau. Behin, deitu Inaki hau eta zera esan zion:

– Oye, cho – euskaldunei "txo" deitzen zieten – traeme el "comboy".

– "Comboy?" – harrituta – ... Bueno.

Ondo ulertu ez zuelako ustetan edo joan zen sukaldera. Sukaldaria galegoa zen. Hala eskatu zion hari:

– Me ha dicho el comandante que lleve "comboy".

– Venga ya, ya esta bien.

– Es que yo no entiendo, yo soy vasco, vosotros hablais castellano... A ver, ¿Que es "comboy"?

– Bueno, bueno, ya está bien, lleva la comida.

"Auxe da biarra" bere artean Inakik.

– Bueno, me ha dicho que lleve el "comboy".

Galiziar sukaldaria be ernegatu zen eta laga egin zuen paketan. Buruari azka egin eta, "comboy"-ari antzik eman gabe, komandantearengana joan zen atzera.

– Cho, estoy esperando el "comboy". Donde está el "comboy"?

– No, no puedo traer "comboy".

– ¿Cómo que no puedes traer el "comboy"?

– Yo no puedo traer "comboy".

– Pero. . ., ¿qué es para ti "comboy"?

– Muchos barcos en la mar y ... caravana del oeste y ... eso para mi "comboy".

– Komandanteak barrirudi bat egin zuen hasieran, baina seriotasunera bueltatu zuen arpegia berriro, serio, zen legez.

– Bueno, bueno, ven conmigo.

Sukaldera joan ziren biak, komandantea aurretik eta Inaki, koittadua, atzetik, zer "jausiko" ote zitzaion beldur.

– Mira, cho, esto es "comboy" – komandanteak, armairua ireki eta hatzamarraz izendatuz.

– ¿Eso "comboy"? Eso salero-vinagrero. En mi casa también ya hay.

Halaxe ikasi zuen hilabete askotan entzun beharko zuen hitzaren beste esanahi bat.

Harriak uretan sortzen dituen borobilen antzera, bat bestearen atzetik, jarraitu zuen soldadutzan herrikide izan zuen Txominen pasarteak kontatuz.

Soldadutzan, instrukzioa egiten zebiltzan goiz hartan be. Gure Txomin torpe xamarra zen, pausoa nastatu egiten zitzaion. Cabo primeroak be ikusia zuen behin baino gehiagotan.

– Badiola, cambie el paso.

Osterabe:

– Badiola, cambie el paso.

Handik piskabatera osterabe abisua kabo primerak:

– Badiola, te he dicho que cambies el paso.

Laugarren bider esan zionean, ernegatuta Txomin, zera atera zitzaion:

– Que cambie la tropa, yo llevo bien.

Soldadutzak militarrengana eroan zuen solasaldia. Militarrek, berriz, gerrako kontuetara, aitari entzuna eta eskolan ikasitakoa hain desberdina zen gerrara. Tristeak alde batera lagata, umorezko gertakizunei ekin zien.

Ba zen Ondarrun Manuel Fernandez deitutako gizonakoa. Kastillerritik etorritakoak zituen gurasoak. Gerra denboran komunak eta garbitzen zituen zen. Italianoak Ondarrura sartu zirenean, galderak egiten hasi zitzaizkien herriko semeei. Halako batean, heldu zitzaion txanda Manuel Fernandez honi.

– Usted, ¿qué es?

– Komunero.

Handik aurreko guztiak ez omen dira oso ondo ezagutzen, baina estuasun latzak pasa onen zituen koittaduak. Komunista zelakoan ia garbitu zuten.

Ba zen Ondarrun " Tienesi " izeneko pertsonaje bat. Karlista zen bera. Erderaz be tamanan jakin eta hala esan ei zuen egun batean, dihadarka batean:

– Viva el Rey, viva el Rey, y el que no quiera, fuera la Monarquía, fuera la Monarquía.

Asterrikako baserriren baten ingurura joan ziren Guardiazibil bi. Baserritarra eskuan atxurra zuela zebilen soluan biharrean. Galderaka hasi zitzaizkion Guardiazibilak:

– Oye, ¿cómo le llamai a ezo?

– Atxurre. – baserritarrak.

– ¿Y a ezo que tiene alau?

– Eskubari.

Adarra jotzeko asmotan edo, hala galdetu zion bigarren Guardiazibilak:

– Y aquí, a lo hijo puta, ¿como le llamai?

– Nosotros no les llamamos, vienen ellos. – erantzun baserritarrak.

Aurretik nongoa nintzen galdetua zidaten, eta ea Ondarru ezagutzen nuen galderari "apur bat" erantzun nion. "Ondarrutarrok berba asko jaten douz" esan zidan andrazkoe-tan zaharrenak. Hori euskera asko erabiltzen zelako zela esan nion, ikasketetan gelakide nuenari hizkuntzaren ekonomiaz ikasitakoa bergogoratz.

"Erderaz be eztakiau ondo ta" esan zuen bigarrenak.

Hortik hasi zen bata ta bestea, itsasoan urte luzeetan ibilitako arrantzale pareak, erdera ez jakiteak edo txarto jakiteak, behin baino gehiagotan ondarrutarrei sortu arazi zizkien egoera xelebreak kontatzen.

Haietako bafora bateko arrantzaleak itsas-ertzeratu ziren, gurma zela ta non egoazen jakin barik. Kaiaren kanpokaldean gelditu ziren. Beste bafora bat, kaitik irtetzera zijoan. Bata bestearen alboan jartzerakoan, eta erdalduna zela konturatzekoan, galdetu zion ondarrutar patroiak:

– De dónde venimos? – non egoazen galdetzeko asmotan.

Usted lo sabra. – erantzun erdaldunak.

"Onetxek emotza galderiak erantzune" ondarrutarrek, bere bostean, antipatikoa iritzita, "neuk jakingotela".

Makinen zaratarekin eta bestearen abiadurarekin, aurrera egin zuten beste baforaren batekoak sinpatikoagoak topatuko zituztelakoan.

Beste behin, jo zuen Saanderrera txalupa batek. Aintzinako garaiak izan, eta gaurko argirik ez zutenek, kan-delekin ibiltzen ziren. Kandelak be amaitu zitzaizkien. Han bidaltzen dute gazteena berriak erostera.

Dendara sartu zenean galdetu zion saltzaileak:

– ¿Que quiere?

– Kandela.

– ¿Qué es eso? – harrituta dendariak.

– Gauza bat luzi ta biztuten dana.– esanaz egin zion, keinuak erabiliz, kandelaren marrazkia.

– A! Tu te refieres a la vela.– dendariak.

– Bela ez beintzat, barruan dakau naiko bela. Bela ez beintzat, kandela baño.

Han doaz atzera Santoñara eta barriro sartu dira gabaz. Amarra txalupa eta bertan pasatu dute gaba. Goizean, batu dira santoñar ezagun batzuagaz eta haietako batek:

– Que, Señor Andrés, ¿cómo por aquí?

– Bien. Oye, tengo que preguntarte, ¿cómo el diluvio por aquí?– ondarrutarrak.

– Por aquí no ha pasado.– santoñarrak.

– Atxe, txarto esatzazu, alubias esatzu amak, ta ez diluvio.– semeak albotik.

– Ixilik eon satxez, zuk eztakixu ixte ta.– ernegatuta aittak.

Beste behin be joan zen ondarrutar txalupa hau Santoñara. "Sarita" edo esaten ziotenera, hain zuzen be. Gabaz allatu ziren.

– Para!– patroiak.

Paratu dira portu sarreran.

– Ara, ... txalopi emen. Au santoñara ra.

Agurtu dira elkar:

– Hola, Manolo, ¿cómo andamos?

– Bien.

– Qué, ¿cómo esta el bokarte?

– Mucho baño, Señor Andrés.

Ondo ulertu gabe, semeari galdetu zion:

– Seme, zer esan dau?

– Mucho baño, Señor Andrés.

Harek ez zuen hitz bat besterik ulertu. "Mucho, Señor Andrés" ulertu zuen, tarteko hitzaren esanahia ulertu barik. Orduan, aitag semeari:

– Seme, sarik bota, sarik bota arin.

– Bañe...

– Ze bañe ta ze...

Bota dituzte eta diñotza semeak:

– Atxe, eztau esan muchos, esan dau bañinos, karramarruk dite.

– Tontu za zu, eztotzazu entendiut te!

Ordurako karramarro txikiak mailatuta egoazen sarean. Lan ederra eukiko zuten dena libratzen. Eta ixetako bez!

Bafora sartu zen Santoñan. Deskargatzen, saltzen edo denbora egiten ari ziren bitartean, ile luzea zuela ta, joan zen ondarrutar bat barberira. Patrikaran bost pezeta bakarrik zeuzkan. Ondarrun nahiko diru izango zen ilea moztearen truke, baina Santoñan zenbat balioko ote zuen jakin baik, urduri aurkitzen zen. Ilea ebakitzen ari zitzaizkiola be, urduri mutila. Gainera, erderaz jakin ez eta ez zen ausartzen galdeztzera.

Egoera hartatik nola urten pentsatu zuen ilea ebaki bitartean. Halako batean, amaitu ondoren, nahiko diru izango ote zen zalantzarekin, hogerlekoa eman eta, aringa, aidean aldegin zuen. Barberoak, hogerlekoa esku batean, labana bestean, hiru pezetako lanagatik bost jasoz, kanpora irten zuen ondarrutarraren atzetik dihadarka:

– No se apure, buen hombre! No se apure!

– Yo nunca lapurre, yo nunca lapurre.– ondarrutarrak, barberoaren hitzak txarto ulertuz.

Euskalerritik urrunduz gindoazen neurrian, urrunduz joan ziren gertakizun umoretsuen gerta-tokiak. Makailutan ibilitako garaietan gertatuak kontatzeari ekin zioten, pozik, irribarrez, gure irri ta algarek jarraitzera gonbidatuta, orain zuk, orain nik, etengabe.

Euskaldunon aspaldiko ohiturari jarraituz, joan dira makailutara ondarrutar batzuk. Groelandian egoazen, portu batean sartuta. Denbora egin asmoz edo, nola-hala ulertuz, jarri dira berbetan amerikanu batzukin. Gaba heldu da eta badoa amerikanua:

"Tu morro" – amerikanuak.

– Ori guzurre, ni euskaldune naz da. – ondarrutarrak.

Beste batean be joan dira marinela Ameriketara. Heltzean, zerbait hartzera sartu dira taberna batean. Tamainan jakin erderaz eta:

– ¿Qué desean? – tabernariak.

– Un café con leche. – marinela batek.

– ¿Y Usted?

– Un café con solo. – besteak.

Denbora arin zijoakigun. Geltokietan jendea sartu, jendea irten, hainbat mugimendu somatzen zen hainbat jende desberdinen artean.

Hasi baziren hasi, zaharrek grabagailuari dioten erreparoa lurrundurik, neuk be konfidantza hartuta edo, animatzen nituen jarraitzera. Herri ez hain handi guztietan lez, ezagunak zituzten gertaera xeble eta pasarte guztietako morroiak.

Itsas kontuekin amaitu baik, itsas inguruko kontuekin jarraitu zuten.

Anai bi aittittarengana joan ziren txalopa egiteko dirua eskatzaera.

– Atxitxe Luis, bagatoz beorrei diru eskatzea.

– Zeba?

– Ba, txalopi nai dou ein.

– Ta, zelaku zuze etxea?

– Burdinezku.

– Burdinezkuntzat enu diroik emotea, ondure jungora ta, burdiñe ondure juten da.

Egun baten gizon bi egunkaria eroatera joan ziren. Bat saltoki barrura sartzen zen bitartean, bestea kanpoan geratu zen. Erosi zuena irten zen eskuan egunkaria eta arpegian harridura erakutsiz. – Ikusi zu au, ederra golpi emotza itxasuk baforai.

Eta besteak erantzun:

– Or golpeik ezta, txo, periodiku aldrebezeta akazu.

Beste behin, txalopa bat itsasotik allatu zen eguraldi txarragaz. Molla gainean egoan "Jose arrantzali" esaten ziotena. Honek, haxe galdetzen dio txalopakoari dihadarka:

– Txomin, ze axe ekarri zue?

– Norte-Suresteko axi.

Harrituta geratu zen "Joxe arrantzali", eta alboan egoan beste marineru batek esan zion:

– Ori, axe ori, "bonba-tonikak" atatakure, "bonba-tonikak".

Barreak be lagundu zien gultzurrunei eta komunerako bidea hartu nuen. Etortzerakoan andren txanda zela ohartu nintzen; lehorreko kontuekin zebiltzan hauek.

Sei anai-arreben tartean laugarrena zen Antonio. Egun baten amak esan zion honi:

– Antonio, aide Espresanea, ekarri txokolati ta partiu umiai.

– Bale.

Joan zen. Eskolatik bueltan Madalena eta Ines arrebak allatu ziren etxera. Gosez nonbait eta esan zioten amari:

– Meixendi.

– Meixendi? Antoniok eztotzue emon?

– Guri eztozku emon ixel!

Zubi-barrian bizi ziren eta begiratu zuen amak behera. Han zebilen Antonio kalean.

– Antonio,– amak balkoitik – txokolati nun dozu?

– Txokolati? Zeuk esaztazu umiai partituteko; partiu rot nik umiai, kaleko umiai partitutzet.

Izan zen zeresana etxean, baita hurrengo egunean dendan:

– Andresa, bakixu zelako gastu akazun? Zure semik nai-beste txokolate erun ban atzo.

Beste behin be eman zion mandatura amak Antoniori:

– Antonio, ekarrixun Espresanetik garbantz, bixar domeki reta. Ta bota ureta.

– Bale.

Joan zen Antonio.

Txalopa be bazuten ta kezka askorekin zebilen ama. Ezin ba denak buruan ibili. Hurrengo goizean, garbantz bila ebilen ama. Ezin topatu eta Antonio deitu zuen:

– Antonio, garbantz nun dozu?

– Ze garbantzo?

– Atzo Espresanetik garbantz ekarteko esan netzun de, nun dozu garbantz?

– Garbantz? Zeuk esan zendun ureta botateko, zubibarrixan bera bota neban ureta.

Mandatutarako beti prest zegoen Antonio berrir be han joan zen etxetik urten aurretik amaren mandatu hau entzunda:

– Esatzaxun tres paquetes de ochenta emoteko.

Dendarako bidean, ahaztutzeko beldurrez, han joan zen Antonio errepikatu ta errepikatu:

– Tres paquetes de ochenta, tres paquetes de ochenta...

Allatu zen dendara eta dendariak galdetu zion:

– Ze, ongun ze esatzu amak eruteko?

– Ochenta paquetes de treinta.– Antoniok.

– Eee...!

– Bai, ochenta paquetes de treinta, ochenta paquetes de treinta.

Esanda bezala, batu zizkion pakete batean eta galdetu zion:

– Ta, zelan erun bizuz ba?

– Auxe, boltsi au, emozta amak.– erantzun zion Antoniok boltsa txikitxo bat erakutsiz.

Boltsa txiki hura ikusiz, harrituta, beste batzutan be ederrak egindakoa zenez mutila, badaezpadabe, galdetu zion:

– Ze esazu amak esatzule?

– Tres paquetes de ochenta, tres paquetes de ochenta...

Madril ingurura helduak ginen, etxez jositako lautada begi-bistan ageri zitzaigun. Bertan ebilen inurri multzoari begira gelditu nintzaion hiri-buruko geltokira ailegatzean.

Trenez aldatu beharrik ez genuen izan, zuzenekoa zen Bilbotik urtendakoa. Denbora askoan itxaron beharrik gabe sartu ginen, berriro, burdinezko kurpilen gainean zijoan gertakizun umoretsu eta xelebrekerien bagoian.

Lehen be, garai batean, etorriak Ziren ondarrutarrak Madrilerara; ta ez beti soldadutzara bakarrik.

Egun batzuk pasatzeko asmotan edo, joan ziren ondarrutar bi Madrilerara. Gosea etorri eta jatetxe bat topatu zuten. "A la carta" jateko asmoaz sartu ziren. Karta ekarri zien serbitzariak, ireki be bai eta, erdera tamainan jakin eran, gauza handirik ez zuten ulertu. Hasi ziren irakurtzen eta hainbeste jaki ezezagunen artean, topatu zuten izenez ezezagunagoa egiten zitzaizen bat: "repollo".

– A, ollu ixango ra au. Ederto. Auxe eskatukorou.

Eskatu be eskatu zuten eta non ateratzen dieten aza platerkada. Ederra disgustoa hartu zuten, baina txarto ez geratzearren, dena garbitu zuten.

Bitartean, alboko mahaikoek, oilasko erre eder bati hainka egin zioten. Hura ikusita inbiritan geratu ziren gure ondarrutarrak. Serbitzaria hurbildu zenean, "repita" esan zioten alboko mahaikoek. Eta non ekartzen dieten, berriro be, oilasko ederra.

– Entzuzu? "Repita" ra ollu.– bata besteari.

Ez zen denbora asko pasa serbitzariari "repita" hitza esan baino lehen. Eta non aza platerkada eder bana ekartzen dieten, oster a be, gure ondarrutar koittaduei.

Gizon biak eta andra~biak txandatu egiten ziren kontakizunetan. Arrantzale ohietan zaharrenak heldu zion ariari, Kastillako geroz eta lautada zabalago eta lur horiagoak zeharkatzen genituen bitartean.

Jon eta Tanbo, mutil koxkorrak, joan ziren, behin, Erretererira txori-habien bila. Erretereriko zubi azpia~ ikusi zuten txori-habiren bat. Jonek esan zion Tanbori:

– Zuk ainketatik agarraten baztazu, nik atrapa eingot txoti-habixi.

– Bale.– esan zion Tanbok– Nik ainketatik agarrakotzut eta zuk atrapa.

Ez zen Jon heltzen txori-habira eta esan zion:

– Tanbo, Tanbo, beraua baja gorputze ba, ena allaten da.

Halako baten, gerora eta pixu gehiago eukan, han egoan agarraten Tanbo.

– Tanbo, benga, beraua, beraua!

Beherago, beheerago ezin zen ailatu, ezin zen ailatu, eta halako batean, ezin zuen gehiago ta, abarketei heldu zien. Bai ta abarketak eskuan geratu be. Tanbo, abarketak eskuan zeuzkala oraindik, dihadarka:

– Ene, ene, ene, a nun da ba?

Jon, buruz-behera jausita, errekan blai eginda.

Hautzaroko kontuekin jarraitu zuten, ilobaren bati-gertatua, hain zuzen be.

Joan zen mutiko bat oporretara Ondarrutik kanpora, Nafarro aldera.

Holakoetan, nahi izaten da etxera zerbait ekartzea, oroigarriren bat edo. Ba zuen mutiko honek ixeko bat, bere ama-besoetakoa. Ta honetaz be gogoratu zen gure mutila. Etxerako erosi zuen oparia. Zer erosi ixeko maitearentzat? Ikusi bat, ikusi bestea, ez zuen ezer egokirik topatzen. Azkenean, zeozer erosi zuen. Paketetxoa jarri, erregalo paperaz bildu eta maitasun handiz ekarri zuen Ondarrura.

Joan zen ixekorengana, eskuan oparia zuela.

– Amen, ixiko, au zeutzat.

Kendu zion loradun papera, albotik ilobak berak baino ilusio handiagoz begiratzen ziola. Non ateratzen duen paper tartetik

portzelanazko platertxo bat. Zera zion platertxoak erdi-
erdian:

"TE QUIERO MAMA"

Andreen txanda zen oraingoan; batak besteari gogoratu zioten gertaldia.

Gooiko-Torren egoazen, lehen, Jose Luisen aita eta ama, Luziano eta Gregori. Denetik saltzen zen bertan: barruko ta kanporako arropak, jostailuak, lapikoak, eta izaten diren guztiak.

Behin, Errege bezpera batean, joan ziren andra bi.

Gregorik ba zeukan mania bat. Joaten zen bakoitzari haxe galdetzen zion:

– Zuk ze naizu?

– Auxe.– andreak erantzun.

– Beno, ondo ra.

Ahaztu harek zer esaten zion eta beste bezero batengana joaten zen.

– Zuk ze naizu?

– Eta denei horrelaxe.

Lehen aipatu bezala, Errege bezpera zen. Bezerotako bati derrigorrezko galdera egin zion:

– Barruko erropak.

Beste andreari be ealdetu zion. Biena entzun zuenean, eskilarak igota aurkitzen zen Luzianori zera dio Gregorik:

– Luxiano, bajaxuz kantzontzilluk eta onei, andri onei, erakutsitzaxuz pelotak.

Guztiek ezagutzen bazuten ere Goiko-Torreko gertaldia, sekulako grazia egin zidan niri eta, barre algarata tean, hariari jarraitzeko asmoa sumatu nien, gizaldi honen hasieran ondarrutar bati gertatuarekin ekin ziotenean.

Andra ezkondu bat, gizona itsasoan zebilen bitartean, lehortar batekin konpontzen zen.

Gizonak ba ei zeukan susmoren bat, baina, dana-dala, hor zebilen, behintzat.

Egun batean, betiko moduan, joan zen gizona itsasora, arratsalde. Baina eguraldi txarra gerta eta buelta egin zuten etxera. Non topaten duen, etxean, andrea beste gizonagaz.

Pentsa zelako eskandalua urtengo zuen garai hartan eta holako herri txiki batean.

Joan ziren Juezarenganako edo asmotan, separazioko paperak egitea. Orduan, ordean, ez zegoen Juezik, juzgaduko sekretarioa izaten zen asuntu hauek aurrera eroaten zituena.

Honek, separatzeko asmoak hartzeko andreari ea zer topatzen zion galdetu zion. Gizonak, andrea beste batekin zebilela erantzun.

– Zu, etxea juten zaz, enin, zeozar faltan ero topate zu?

– Ez, jaune.

– Erropa kontuk eta jatekuk eta, danak, ondo be-ondo ipinitxe eukitzetzuz?

– Bai, jaune.

– Gizon morun, andriak zer bait ukatzetzu?

– Ez, jaune.

– Ba, ordun?

– Ba,...

– Ba, or ezta. Danak emoten botzuz, danak ondo ipinten botzuz, ixe ez baatzu faltaten, sobraten'danaz berak aintzen dau.

Konpartimenduko atea ireki eta txapeldun agure sudur-zorrotz batek agurra egin zuen:

– Ze, txo, zelan guz ba?

– Ondo, umore onin beintzat.

– Beste bagoin gaz. Buelta bat emotea etorri na, ia ondarrutarrak nun sarturizen jakitxea.

– Ba gu amentxe, soldautzi dala ta eztala asi gaz onetxeaz mutilaz ta aspaldiko kontu zelebrik kontaten baje guztin.

– Igarten gatzue. Inportik ezpotzue neu be geltitxu eingo naz pixkat, neu be akordaten na batzukin.

Hara non, konturatzeke, bostgarren kontalaria. Bostkote ederra osatu zuten.

Bazen Ondarrun Polka izeneko pregoilaria. Etorri zen herrira kamioi-bete patata. Agindua emon zioten: patatak kiloka edo zakuka erosi nahi zituenak Alhondigan zituela salgai. Atabala joaz honela bota zuen pregoia: – Ha venido, ha venido un camion con patatas. El kilo a una cincuenta y a tomar por saco una veintisinco.

Andrazkoak be ez zeuden isilik egotekotan. Donostian neskame edo krixara egonak, bazuten.zer konta, batzutan euren inguruan gertatuak, beste batzutan honi ta hari

entzunak. Nahiko lan eman zien hauei erdera ez menperatzeak.

Joan zen ondarrutar gazte bat krixara kapitalera. Urte batzuk pasa zituen bertan eta bueltatu zen Ondarrura. Ama pozik aurkitzen zen, alaba erdera oso ondo ikasia bueltatu zela ta. Baina beldurra ematen zion hainbeste kostata ikasitako erdera ahaztuko ote zitzaion Ondarrura etortzean. Holakorik ez gertatzearren eta, bide batez, praktikatzearren, haurzoko andra erdaldun batengana eraman zuen alaba. Hau, herriko maixuaren emaztea zen. Amak ondo baino hobeto esplikatutako zion bisitaren zergatia. Etxean sartuaz batera, eskatzean sua ikusi eta, zekienaren maila erakusteko asmotan, zera esan zuen erderaz:

– !Que ke mama!

Ba zen beste ondarrutar neskatxa bat be krixara hiriko etxe batean. Plazara zijoan egun batean ea zerbait berezia ekarriko zuen galdetu zion etxekoandreari.

– Traiga un zapatero.

Eta neskatxak, bere bostean "zetako nai eterau onek zapateru etxin."

Hala ta guztiz joan zen. Zapatarari esan eta etxera ekarri zuen.

– Senora, ya he traído al zapatero.

– Muy bien, dejelo en la fregadera.

Neskatxak, bere bostean, "En la fregadera? Zelan sartukot gixon andixe fregaderan, ba!"

Hasierako ezin-ulertua berehala konpondu zuten. Etxekoandreak papardo arraina ekartzeko esan erderaz, (zapatero), eta neskatxak zapataria ulertu.

Krixara joana ba zen beste ondarrutar bat be. Honek ederki ikasi zuen erderaz, oso ondo moldatzen zen. Baina etxeoandrea ez zegoen oso gustora, izan ere denei "Tu"-ka egiten zien. Halako egun batean deitu zuen etxeoandreak eta haxe esan zion, beraz oso gustora zegoela, langilea zela eta abar, baina erderaz berba egiteko zuen era ez zitzaiola asko atsegin, lagunekin ondo zegoela "Tu"-ka berba egitea, baina beraz eta etxeo guztiekin "De Usted" berba egiteko.

Ikasi zuen, ikasi zuenez, lezioa. Gelaren bat garbitzen ari zela, katua sartu eta zerbait bota zuen ankaz-gora. Apuratuta joan zen etxeoandrearengana esanaz:

– Senora, Doña Señora. El Señor Don gato se ha subido a Doña Cómora y ha roto Don Kinke.

Donostian elkarrekin neskame egonak eta aspaldiko urtetan elkar ikusi gabe, Ondarrutar eta goierritar andra bi topatu ziren Donostiko kale batean.

– Zer moduz? – galdeltu zion ondarrutarrak.

– Ondo. Ta zu? – erantzun goierritarrak.

– Neu be ondo. Ta umik?

– Oraintxe karrera amaituta gaztena.

– Zer ikasirau ba?

Interprete edo.

– Zer da ba ori?

– Batek esaten dun gauza beste esatea.

– A! Ondarrun orri alkauete esaten gako.

Ea neure herrian ez zen inoiz xelebrekeririk gertatu galdetu zidan azkena sartutakoak. Lehen esan dudanez, nire afizioak hanga eta hemengo gertakariak biltzera eroaten nau.

Ezagutzen nituen nire herrian gertatutakoak eta pare bat kontatzera prestatu nintzen.

Lagun batek eskaera bat egin zion beste lagun bati:

– Bost ogerleko utziko al dizkidak?

– Etzeukat ba xentimorik poltsikuan.

– Eta etxean?

– Etxean denok ongi, Jainkoari esker.

Tripako minak eman eta egunetan horrela egondako bat joan zen medikuarengana. Erantzi arazi zuen eta urdailean saka egin zion hatzamarrak sartuz. Ondoren galdera pare bat egin zizkion tripakomindunari:

– Goserik izaten dok?

– Bai eta ez.

– Zelan bai eta ez?

– Jan aurretik bai, ondoren ez.

Medikuaren kontua aipatu banuen, aipatu nuen. Ondarrun ere medikuekin edo hauen inguruan gertatutakoak hamaikatxo bat omen ziren.

Ondarrutar bat, arotza bera, istripua izan eta Galdakaora-eroan zuten. Zerra mekanikoarekin ari zela non ebakitzen duen hatz bat. Egun batzuk geroago, esku osoa bendatuta duela, ospitaleko pasiluan aurkitzen da, familiartekoen bisita aprobetxatuz zigarro bat erretzeko. Honelako tokietan jende asko ibiltzen denez, non topatzen duten ondarrutar emakume bat pasiluan.

– Zeu be amen?

– Bai ero.

– Ta, ze eizu ba?

– Atzamar bat ebai.
 – Atzamar bat besteik ez? Ori ezta ixte. Neure gixonak be onetxek laurak moztu zitxuzen –ezker eskua erakutsiz– ta alan da be makinaz idazten dau.

Ameriketan sendagile egoan Ondarruko seme bat oporrak pasatzera etorri zen. Ekarri zuen berarekin zer esana eta berbetako gaia.

– Amen, Euskalerrixan, zirujixi ondora.– esan zion batek mediku etorri barriari.

– Bai, baine, ezta bardine ixango– erantzun zion mundu osoa ezagutuko balu baino haize gehiago eukan "Doktorrak"– ezta bardine ixango amerikanuk etxen dabena. Amerikan batek ontxe ein ddau. Egur bateaz atatzta beixe neure lobiai ta egurrezku ipinitze. Ta ikusi etxen dau.

– A! Ori ontxe esangotzut.– besteak– Tolosan madrinadora batek kendutzaz lau atzamar mutil batei. Eta ganarun lau titi ipinitzaz, ta amazortzi litro esne emoten dau eskutik.

– Baine, ori zenek ikusirau?

– Zeure lobik, orretxeaz egurrezko beixaz.

Operatzera joan zen Bilbora ondarrutar bat. Hitz-motela zen pixka bat bera. Bueltan etorritakoan zera galdetu zioten:

– Ze, Jose, zelaik?

– Ondo, ondo be ondo.

– Ta, lo etxeko ta, ondo konpontzen zinan?

– Mora biaz lo ein ddot, mora biaz.

– Zelaik mora biaz? – harrituta eta inbiritan galdegilea.

Koittaduak ez zekien "almoara bi" esaten.

Konpartimenduko leiho irekitik periodiku-saltzaile baten abotsa sartu zitzaigun. Burua atera eta geltokiaren izena irakurri nuen. Ez zitzaigun asko geratzen, ez ta ere tenporada bereziko oporraldia pasatzera zijoan jubilatuta taldeari be. Nirea ere oporraldia izango ote zen! Periodiku-saltzailea bigarren aldiz pasa zen andenean zehar egunkariaren izena dihadarka.

– A!– ekin zion, berriro, azken sartu zenak, ambiente ona ikusi eta joateko gogo baik.– Joxe "Riko"-i pasatutaku baakixue?

Joxe "Riko"-k, oso gaztetan, egunkariak saltzen zituen. Abendu sasoia zen, loteriako egunaren biharamona, hain zuzen be. Han zijoan kalean egunkari sorta besapean eroala. "Patxineku" tabernan sartu zen. Barruan nor egoan fijatuta barik "Ha salido el gordo"-ka ekin zion.

"Patxineku" taberna barruan ba egoan gizon totolo-totolo bat. Burla egin ziolakoan edo, jo zuen eta beangainera bota zuen Joxe "Riko" egunkari guztiekin batera.

Oraindik sotana zerabilen apaiz lodikote, lepa-motz eta sudurpuztu bat pasatzen ikusi genuen konpartimenduko kristalaren atzetik.

Ondarruko elizan gertatu zen honakoa. Abadea, kanpotarra, meza emoten ari zen. Akolituia aldara begira zebilen, saguren bat ikusi eta haren bila.

– Kirieliixon.

– ...

– Kirieliixon.

– ...– akolituak erantzunik ez.

– Kirieliixon.– atzera be abadeak.

Hankarekin zirkin egin eta esan zion abadeak:

– Zer dabik?

Eta akolituak:

– Ara, saguk eskaparau!– lehenengoko lerroko parrokianoek, behintzat, entzuteko moduan.

– Bueno, ni banu. Esangorabe bestelaik
....Azkana kontakotzuet.

Jose Mari "Huevo"-k kriston parranda bota zuen; pare bat egunean etxera agertu barik egon zen. Allatutakoan andreak berba-erdirik be ez.

Ohera joan ziren biak eta andreak lepoa eman zion.

Halako batean andreak buzkarra bota zuen.

Ondoren, oraindik ajea pasa gabeko gizonak txisa egin zion popa gainera. Haserretu zen andrea, baita istiluak atera be.

– Zer dabizu????!!

– Trumoi urrengu eurixe ixaten da ta.

Erlojuari bagiratu nion eta laister helduko nintzela sumatu nuen, Bilboko geltokian esan zidatena kontutan iza-nik.

Hiruzpalau zinta grabatuak nituen ondarrutar haietxen kontuz beterik. Edadeko jendeari halako beldurra ematen dio beren abotsa grabatzeak, egia da, baina ondarrutar haiei nire afizioa agertu nien une beretik, zabal ta ireki agertu zitzaizkidan. Izan be, hartarako irrikia izan dut beti, hango eta hemengo kontakizunak bildu eta aztertzea.

Trenaren adarrak ulu luzea egin zuen geltokiaren ongi-
etorriari erantzuteko asmoz. Petatea jeitsi nuen burdinezko errejiladun apaletik eta ia bide osoan eskuan ekarritako grabagailutxo bertan sartu nuen. Nork esango zidan, aurretik, horrelako bida; atsegina egingo nuela!

Trenaren gelditze-txirrika hotsekin batera eskua luzatuz gizonezkoei eta musu emanaz andrazkoei, agurtu nintzen, hain bidai atsegina eskeini zidatelako eskerrik beroenak emanaz. Soldadutza amaitutakoan Ondarrura agertzeko gonbiteari gogoz egingo nuela agertu nien.

Eta nola diren kontuak. Amaitu nuen, amaitu nuenez, ditxosozko soldadutza. Oposaketak prestatu eta sendagiletarako aurkeztu nintzen. Aurkeztu eta lortu. Nonk esango zuen; nork esango ote zidan; urte bi lehenago ezagututako ondarrutar haiek odolean sartutako pozoin pozgarriak itsas-ertzerako bideak ireki zizkidala esan behar, kresalaren usain sarkorrak beti txoratu bait nau. Ondarrun aurkitzen nalz gaur-egun, herri hontako osasunaren zaindari.

Soldadutzan, nire ikasketak zirela eta edukitako postuak lasaiune ederrak eskeintzen zizkidan. Eta hoi-etxek aprobetxatu nituen bidai atsegin eta umoretsu hartan entzun-grabatutakoak papereratzeko. Gordeta eduki ditut eta, hara non aukera ezin hobea zuek be ezagutu ditzazuen, gura badozue.

Mediku lez zera esango nuke, gaur egun edertoago ezagutzen dudan herri honen umoreak osasuntsu jarraitzen duela,... eta bestela hona hemen osasunaren froga.

Sarea josten ari zen bati hala galdetu zion turista batek, bisitatzen ari zen Ondarru herri osasuntsua ote zen jakin asmoz:

– Sarri hiltzen al da jendea herri hontan?

– Ez, jaune, bein bakarrik.

"URRUTXE" - JOSU SOLABARRIETA AÑORGA

Nori agertu maitemintasuna?

Nik, amazazpi edo amazortzi urte neukazengan, ez egoan oraingo langabeziaren arazorik, eta nai eben geienak baeuken lana. Orain, zori txarrez, ez da orrela.

Aste guztian lana egiten genduan, baiña igandeetan, jai eta Igandea, gure naiak, askatasun osoz betetzeko artzen genduan. Ordun, oiturea zan, igande goizetik, mendira joatea eta eguerdian jatsiten giñan Ondarroa'ra bazkaltzeko.

Taldeak, neska mutillakin osotuak egoten ziran, eta oso pozik mendira joaten giñan. Ni, kuadrilla orretako baten partaidean nintzan, eta gure kuadrilla, ia geienok, nai neska nai mutil, geure lagun "berezitsuak" geunkan kuadrilla barruan.

Igande goiz baten, Ondarroa'tik Itziar'ko Andutz mendirako bidea artu genduan, menditik egunsentia ikusteko asmoarekin, orregaitik Ondarroa'tik urten genduanian gauea zan oraindik, eta ezan ezer ikusten, dena zan illuna. Angiñoyazen ba bide illun aretatik, eta kuadrillako bakoitzak, bere lagun "bereziarengana" asi giñen urreratzen, eta ezin ukatu, neu ere bai.

Bagoaz ba bikote bakoitza mendian goruntz kontu kontari, eta asi nintzan neure neska lagunari, itz goxoak eta amodiozko kontuak kontatzen, oso maitemindurik nengoan da, baiña ez nintzan ausartzen neure neska lagunari begiratzan be, jakiñekoa dan lez oso lotsaturik negoa neure barruko sekretuak, momentu artan, berari agertzen nebillalako. Baina berak neure itzik ez, eta biok bidean aurrera ixiltasunean eta illuntasunean, bera, neu baiño zerbait atzeragoago etorren bide guztian.


Alako batian, begiratzan dot atzeruntz eta nun ikusten dot ogei metrotara, inguru artako baserri bateko andra bat,

ordungo farol bat biztuta eukala, eta bere ezker eskuma nire kuadrilla guztia, eta nire neska laguna be eurakin etorren. Asten dira danak barre algaraka, eta ni, bide guztian nirekin nor etorri zan billatzen asi nintzan, ia nori agertu neutzazan neure barruko sekretuak. Aurkitu nebanian, ixa atzeruntz jausi nintzan, a zer lotsa nirea, bide guztian neure aldame-nean etorri zana, ¡ASTO MANDO BAT ZAN!, farolakin etorren andrearen astoa.

Gixajo onek, ez nekien nora begiratu, zer egin eta nun sartu. Danak neuri barrez eta burlez, eta ni lotsaz beterik, nori agertu neure sekretua eta ASTOARI.

Egun a, ez jata sekula aztuko.

Urrutxe



San Juan surik ezin egin

Ni gaztea nintzanian, Ondarroa'ko parrokian akolitxua nintzan.

Ordungo abade batzuk beintzat, gurekin gogorrek izan ziran, eta sakristaua zer esanik ez, beti ebillen gure atzetik noiz arrapatu okerkeriren bat egiten ba'gendun.

Garai artan, abadeak erreguak abotz gogorrakin egin izaten eben Eliza guztian entzun nai baziran, abots makalakin egiten baziran ez ziran Eliza guztian entzuten zeren ez zegoen orain dagoen megafonizko tresnarik.

Bazan abade bat, D. German (GB), urtetan sartua, abotsa, makala zeukana eta bere abotsa kurpituak amabost metroraino bakarrik entzuten zan, andik aurrera, batez.

San Juan bispera baten, (suak egiteko eguna), abade zar au, errezaxu errezatera kurpituak juan zan, gu, akolitxoak, kurpituak azpian eta baita be sakristaua, aurrengo aulkian. Asi zan ba gure abade zara errezaritu errezatzen, eta erriak, nai ta entzun ez, oitura edo erritmoa artuta eukan lez ba, erantzun egiten eban. Baña, zer sorpresa gurea, "letania" bukatu zanian, nun diño gure abade zarrak, ¡zer!, zuek erreza dozue ez?, ba !nik ez!, orain barriro asiko gara letaniarekin.

A izan zan folklorea, erria mar-marka, gu, akolitxoak barre algaraka, sakristaua guri kaskarrekoak emoten eta abar.

Alako baten normaldu zan giroa eta barriro "letaniarekin" aurrera baña erria ixil ixilik abadearen abotsa entzuteko, eta olako ixilune baten, "purrust", sakristauak puzkarra. Ori bai entzun zala Eliza guztian, barriro be nastea, akolitxoak barrez, abade zara asarre, erria ixilik, eta sakristauaren arpegia tomatia baño gorriago, eta bere burua korapillo aretatik ataratzeko ba Jaxinto akolitxuari belarritik

agarra eta sakristia eroan eban, Jaxinto balitz lez "PURRUSTADAREN" jabea.

Gauza ori ikusita, ezan neban, sakristauari trastadaren bat egin bear dautsogu, ¿zer egin?, intzentuari ikatza kendu eta ezin izango dau keirik egin esan eban norbaitek. Esan eta egin.

Mezia asi zan eta itzentzuarekin bedeinkatzeko ordua eldu zanian, ikatzik ez, baña gure sakristaua, ez zan errez bere burua galdutzat lagatekua eta "korreta-zarrea" juan zan. (an geunkan akolitxoak lar munto bat, gauean "San Juan" sua egiteko). Lar txiki bat artu eban intzentzuan ipiñi eta sua emon eutsan, eta nola ez, kea bai baña geiegi eta nabari igarten zan ez zala intzentzuko ikatzaren keia, eta abadeak, izugarritzko bronka eta zarata atara eutson gure sakristau gixajoari.

Baña Zeruko Santuari be ez eutsen grazi aundirik egin, zeren Mezia amaitu ondoren, asi zan euri zaparrada gogorra eta bi edo iru egunian ez zan atertu. Euri zaparrada zala eta San Juan bizpera artan ONDARROA'ko mutillak, surik ezin eginda ibilli giñan.

Urrutxe

Total edo ipardunan kontuak

Total edo ipardunak dirala'ta badagoz gertakizun barregarriak, eta orretariko iru, kontatzera noa.

Lenengoa: -Orain dala ogeitabost bat urte, Ondarroa'ko Eleizako sakristaua, ipartuna zan, batez be urdurik jartzen zanian, eta akolitto asi barribat be, iparduna zan, ipar aundi-koa gañera.

İgandeko Meza-naguzi baten, abadeak, ipardun akolittoa intzentzoaren billa sakristegira bialdu eban, baña akolittua ez zan altarara bueltatzen, orduan abadeak, beste akolitto bat sakristeira bialdu eban, eta au bai, ariñ be ariñ altarara bueltatu zan, korrika baño besterik ez, baña intzentzu barik. Orduan, altaran egoazen abaretatik bat, sakristeira intzentzua-ren billa, eta ia zer gertatzen zan jakitera joan zan.

Sakristeira sartuaz batera, baster baten ipardun akolittoa, negarrez ikusi eban, eta sakristaua asarre bizian. Abadeak ikusirik sakristeriko giroa, ia zer gertatu zan galdetu eban, eta sakristauak erantzun:

-Ze...ze...zer ger...gertatu da...dan, ba u...u...ume mo...mo...mokoza onek be, i...intzentzua-ren bi...billa etorri da...da...danian, bu...burletan.a...a...asi dala.

Abadeak:

Zer burle ta zer demontre, ez aldakizu akolitto onek, zeuk baño ipar aundi-goa daukala?

Bigarrena: Gertakizun au be, lengo akolitto bardiñari gertatutakoa da. Gabon aurreko egunak ziran, eta urtero lez Gabonetarako Jesus'en jaiotza bat ipintzen zan. Arduradunak, D. Karmelo Abadea eta bere akolitto taldea izaten ziran.

Arratsalde baten, D. Karmelo'k, txintxetak falta ziranla ta txintxeta billa ipardun akolittoa bialdu eban Kantxopean egoan ferreteri batera, Arriola zeukan izena, baña Ondarrutar geienok "buruandi'neko" ferreteri lez ezagutzen genduan.

Sartu zan gure ipardun akolitxua ferretegian, eta dendako arduradunari Laureano Arriola'ri akolitxuak esan eutsan:

Bu...bu...Buruandi, txi...txi...txintxetak ba....ba... ba-dakazu?

Lauriano'k erantzun:

Zer txotxo, i...i...ipartxu, i...ipartxu dakazu?

Akoliyxuak erantzun:

Ba...ba...batxe zuk, bu...bu...buru a...adixe, eta korrika asi eta gure akolitxua Eleizararte ez zan gelditxu.

D. Karmelo abadeak, beste akolitxo bat bialdu bear izan eban txintxetak lortu nai bazitxun.

Irugarrena: Ondarrutar arrantzale ipardun bati gertatu jakon, Galiziko kai baten.

Ainbeste egun itxasoan eginda gero, porturatu egin ziran, eta gizon au, bizarra moztea, barberi batera juan zan, baña ain zoritxarrez, barberi aretako barberua be, iparduna zan, (ez dira munduan asko egongo) baiña barbero au ipardune zan.

Gure arrantzalea konturatu zanian barberuaren iparraz, "dentistaren" txandan lez, atzetik egoaneri, aurrera pasatzen lagaten eutsan, eta an egoan ordu bat baño geiago, egoera bardiñin, ze billurre eukan barberuak berba egiten eutsanian, bera be iparduna zan lez, burlatzat artukoebala bere erantzuna eta kokota moztukotzalakoan.

Alako baten barberua be konturatu zan zelan gure arrantzaleak, txanda pasaten lagaten ebala eta gure gizonari galdetu eutsan:

O...oiga, u...u...usted a que ha ve... ve... venido, a co...co... cortar el pe...pe... pelo o a de... de... descansar?

Gure arrantzaleak orduan urduritasun baten:

A... a... ahora vu... vu... vuelvo, vo... voy a por ci... ci... cigarros, eta atetik urten eta korrika baten inguru aretatik igez egin eban barberi aretara geiago ez bueltatzeko.

Urrutxe

Gauerdian billotxik

Orain, ez dira kuadrilla artian lenalako posturarik egiten.

Ba dira urte batzuk postura entzutetsuak egiten zirala, nai kuadrillakoak, nai bakarrekoak, dirua baño janari edo edaria jokatzan zan, zer esanik ez postura serioak be egiten zirala, eta postura oneikgaitik, buruko miñ eta negar ugari izan ziran jokalaria zalen etxeetan.

Baiña ni gaur kontatzera noiana, ez zan azkenengotako postura izan zelebretakua baño, orain dala ogeitamar bat urte gertatutakoa da, gure inguruko kosta aldeko erritxo baten.

Kuadrilla arteko afariak, sarri egiten ziran, batez be igande ta jaibezperan, eta afari aurrean ta baita ere afaldu ondoren tabernarik taberna eraten ibiltzen ziran. Alako baten batu ziran ba afalostian kuadrilla bi taberna baten eta asi ziran batzuk, bestiak baño geiago ziranla eta abar, zenbat eta gibel aldia bustiago euki, desafio gogorragokoak izaten ziran, ta alako baten, kuadrilla batek besteari esan eutsoen:

Afari bat jokatzan dautzugu ez daukazuela barrabillarik zuen kuadrilla guztiak (ogeitabost inguru lagunekoa) billotz billotzik erriari buelta osoa emoteko. Beste kuadrilliak segiduan baietz erantzun eutsan.

Postura ori betetzeko, ixentatu eben igande bat, baiña desafio botatzalleak, ez ziran orduarekin kontutan jarri, eta desafioa artu ebenak, ordua, eurak ipiñiko ebenla, eta goizaldeko iruretan erabagi eben. Ori entzutean, desafio bota ebenak, galdutzat ikusi eben euren asmoa, baiña kuadrilla one-tako batek esan eban: ondo dago, zuek ordua ipiñi bai baiña buelta osoa billotz billotzik eta oñez egin bear dozue, eta ez korrika, korrikan asten bazarie, galduko dozue postura.

Beste kuadrillak ontzat artu eben kondizio ori, eta azken baten danak batera, adoz jarri ziran.

Egun ixentatu artan, kuadrilla ori, narru-gorritz erriari buelta emoten asi zan, kaleetan ez egoan iñor eta postura errez irabazita ikusten eben. Baña erriaren erdi erdian doazala, Pin Pan Pun, dunbada, txupinazo, petardo, bolandera eta izugarritzko ainbat zarata entzun zan erri eta inguru guztian.

Erriko jente guztia, balkoi ta leioetara urten eben ia zer gertatzen zan ikustera, eta an aurkitu eben mutil gaste kuadrilla bat, euren eskutuko "trastik" gorde eziñda baster guztietan zear korrika.

An amaitu zan ba billotzik ebizenen lasaitasun eta ibilaldia, ba mutil onen larri aldia izugarritzkoa izan zan ikusirik nundi norako joera artu eziñak.

Baiña zuek ez euki kezkarik, ze, nai irabazi edo ta galdu ebenak, jarraitu eben euren afari eder eta postura entzutetsuak egiten.

Urrutxe

Argazki batek bizia salbau

Guda denporan, gertakizun negargarri asko izan ziran, baiña nik gaur kontatzen dodana, negargarritasunaren barruan, batentzat beintzat pozgarria izan zan.

Nire aitaren aldeko sendian, zortzi anai-arreba izan ziran, bost neska eta iru mutil, Gizonezkoaren artian, nire Aita izan zan zarrena.

Guda agertu zanian, nire aita, Patxi Solabarrieta'k, 20 urte eukazan, eta gogozko (voluntario) gudara joan zan, eta ikusirik luzerako izan bear zala guda madarikatu ori. "ITXAS-ALDE guda-taldearen partaidea izan zan.

Bigarren anaia, osaba Eugenio Solabarrieta'k 16 urte eukazan, eta etxetik iges eginda, gudara joan nai izan eban berak be, baiña esan eutsoenian gazteegi zala, atxaki lez ipiñi eban umezurtz lez ez daukala inñolako seniderik eta abar.

Nire aita, frentetik etxera etorri zan baten, jakin eban bere anai gaztearen iges aldia, eta beste barik, bere billa jua zan, eta an edo emen alako baten anaia aurkitu eban eta etxera ekarri be bai. Nire aita barriro be joan zan frentera, eta berak, etxetik urtenaz batian, bere atzetik, anai gaztea barriro gudaritzara, baiña osaba Eugenio'k, zori txarra euki eban, prisionero jausi zalako frankisten eskuetan, baiña Kapittanak, umea zalako edo beñipein gaztea ikusten ebalako, beragaz artu eban bere mandatarari lez.

Egun baten, Gudari talde bat fusilatu egin bear ebezela jakin eban osaba Eugenio'k eta bertara jua zan ia norbaiti laguntzeko zerbait egin al ba'eban. Nor ikusiko eta bere lagun aundi bat, Jesus Basterretxea, "Jesus Akulu" Jose Mari "frantzesan" anaia ikusiaz batera, beregana jua eta inñok ezin askatzekoeran besarkada gogor baten geratu ziran. Ez egoan

inñor areik askatzeko, momentu baten, izugarritzko nastea sortu zan, eta Kapittana jua zan zer gertatzen zan jakitea, eta an ikusi eban español lez jantzita egoan soldau bat fusilatu bear ziran gudari bateri kokotetik gogor agarrata, eta urreratu zan ba eurengana eta orduan ezagutu eban bere mandatarari gaztea. Orduan nire osabak ez fusilatzeke esan eutsan, bere lagun aundi bat zala, baiña Kapittanak, ez eutsan siñisten eta soltatzeko momentu artan bestela bera be fusilatuko ebela eta, baiña nire osaba Eugenio ez egoan orretarako ta len baño gogorrako kokotetik elduten eutsan.

Kapittanak, orrela ikusirik, esan eutsan ia benetan bere laguna zan eta nire osabak Eugenio'k atara eutsan argazki bat, bertan ikusten zirala lagun biak kokotetik elduta, pikete aurrian egozan lez.

Kapittanak ori ikusirik, illaratatik kentzeko esan eutsan. Beste Gudari gustiak fusilatu, eta Jesus Basterretxea bakarrik librau zan, bere lagunari eta Jainkoari esker.

Negargarria izan zan beste Gudariak ezin azkatu bearra...

Urrutxe

Neure aitaren lenengo jaun artzea

Patxi zan nire aitaren izena. Ia zelako ona izan bear zan, bere gazte denporatan, ezizen lez "Patxi Inpreñu" deitzen eutsen.

Bere lenengo Jaunartzeko eguna eldu zanian, norbaitek lagatako jantziakin egin eban, baña dotore eta guapo jua ei zan.

Amaitu zanian Elizkizuna, bere lagunak ondartzara jua ziran, eta bera be bai itxuraz. Erantzi ebazan bere jantziak eta dotore tolostuta laga baster baten.

Jua zan ba bere lagunakin igarian eta jolasean ibiltzera, eta jolasean ainbeste denpora egin ondoren, eldu zan etxera juateko ordua, jantziaren billa jua zan eta, ijantzirik ez!, zer gertau zan?, ba, itxasoak eroan eba'la!.

Nire aita ez ekien zer egin, bakarrik ekiena zan, bera ez joiala etxera eta an egoen ba ondartzan, erdi billotxik, etxera joan nai ez-da.

Alako baten urreratu jakon bere ixeko bat Alejo'neko Matilde eta berak bere amantalian batuta eroan eban nire aita etxera. Etxean sartu eta ikusi ebenian zelako itxurarekin etorren bere Jaunartzeko egunian, barrez asi eta ixa, jatekuak be kalte.

Barreari emon barik, neu joteari emon ba eutsen, bero bero ipiñiko ninduen, esan eban nire aita. Ez dakit zela konpondu eben jantziaren arazoa.

Nire aita, Patxi Solabarrieta zan, eta 52 urte eukazala Jaunak deitu eutsan bere ondora, nik beti ezagutu neban gai-xorik, bera il zanian, nik 14 urte neukazan eta iru anai-arre-

betatik gasteena nintzan, beste arreba bi, umeak zirela il ziran, orduan jaio berri asko iltzen ziran zoritxarrez.

Anai-arrebon izenak onetxek dira; Mari Isabel zarrena, gero Imanol, eta urrengokoa neu Josu izenakin bateotua. Il ziranak Arantza eta Maribi. Nire ama, Daria Añorga da, orain 73 urte daukaz, makiña bat biar egiña bere bizitza guztian geu aurrera atarateko. Bai, aita gaixorik egon zanian, eta il da gero, zer esanik ez.

Jainkoari esker, atara gaittu aurrera eta gaur egun, iru anai-arrebok, iru sendi eder osotuta daukaguz.

Gertakizun au, neure gurasoen oroimenean eta eurari eskerrak emoteko gogoratu dot.

Urrutxe

Sutako-burdiña eta platera

Gure gurasoen etxeetan, beti ezagutu izan dogu egur-ikatzeko suak edo kosiñak, eta sua astintzeko edo eragintzeko, sutako-burdiña erabiltzen zan.

Gure etxean be orrela zan, baiña nire anaia eta ni "aingeruak" ez giñanez, gure amak, sua ezik gure atzealdean astintzeko be ainbat bidar erabiltzen eban.

Nire anaiak esaten dau, gure etxeko "sutako-burdiñan-lako" okerrik edo biurrik ez egoala Ondarru guztian, eta biurri orreik, geure atzealdean egindakoak zirala. Baita be esaten dau, geu bizi giñan azpian egoen dendako jaubeak, aberastu egin zirala, gure amak, gure atzealdean apurtu eta denda orretara erosten ebazan eskoba kirtenakin.

Garai artan, gure etxean jatekua sobre ez egoan, baiña falta be'ez. Gure ama zorutzen ebana zan jatordua eltzen zanian, gu, jatekua naiez jan'da ibiltzeak.

Eurak, gudan eta guda ostean ainbeste gose pasa eta orain jatekua egon eta guk, jatekorik naiez jan, orrek "beranetik" ateraten eban.

Neuri geien gustaten jatana zan, ogia oriotan sartu eta azukria botatako bokadillua egin, edo cafesne sopak ainbeste natarerin jatea, oneik ziran nire janariak. Beste edozerrekin gerria ipintzen neban, ez nekien ezer jaten.

Bein, jatordu baten, gure amak baña-patatak ipiñi ebazan, patatia asko eta baña gitxi, eta betiko lez, an negoan ni naiez janda. Amak jateko eta nik ezetz.

Amak: -Josu, jateko baña-patatak-.

nik: -ama, ez dot nai-.

Amak: -jateko esan dautzut-.


nik: -ezetz ama, ez dot'tela nai-.

Amak: -baiña neuk nai dot-.

Nik: -ama, zeuk nai badozu, jan zeuk-. (txartasun barik esan neutsan) nik ori, bai esan ba'neutsan ba... Amak, artuban jaten negoan platera eta joten nau plateragaz burutik bera... Platera, milla zati, eta baña-patatak burutik bera..., gorputz guztian zear. Aitak, beste matalazurreko parebat emon eustazan eta une baten dana "gori-gori" jarri zan.

Bai niri, geiago orrelakorik esateko gogua juan.

Urrutxe



Soldadutzako kontuak

Soldadutza denporan, Caceres aldian, maniobretan, illa-bete inguru ibilli ondoren, eta bukatu ta gero, egun bat libre emon euskuen inguru artan nai genduan lez pasatzeko.

Gure kanpamentu azpian, erri bat egoan, eta ia, soldadu guztiak, erri orretara jua ziran, baña nik, neure kuadrillari esan neutson, erri ori soldaduz beterik egongo zala eta obeto gendula beste erri batera juatia, eta ori egin genduan, bost kilometrotara egoan erri batera jua giñan.

Errian sartuaz batera, eguerdiko ordu bata inguru ziran, eta jateko toki baten billa asi giñan, eta bertako agure batek esan euskuen, erriko alkatearen semea bateoa zala, eta erri guztia egoala konbidaturik. (erria, oso txikia zan).

Juangiñan ba alkatearen etxe aurrera eta an gengoan 13 mutil aundi, etxeko ateari begira. Jakin ebanian alkateak an gengoala, kanpora urten eban eta galdetu euskun ia zerbait nai genduan jan, guk, baietz eta an sartu giñan etxean, geure arpegi aundiagaz, nai zan guztia jan eta edateko.

Etxeko atze aldian, zelai aundi bat egoan eta zelai aretan, iru mai galantak janariz beteta. Gu, bertakoak bagiñan lez, nai zan guztia jan eta edan genduan. Bazkaldu ondoren, dantzaz be egin genduan bertako neskakin, ez egozan asko, baña egozanakin ainbeste dantza egin gendun.

Erromexi aurrera eta gu, gero ta animaua; eldu zanian kanpamentura bueltatzeko ordua, (gaueko amarretarako egon bear genduan), iñor be ez giñan gogoratu beranduzanik, eta gitxiago joan bear gendunik bere orduan, eta an jarraitu gendun nok daki noiz arte iñolako buru-auste barik.

Jarraitu gendun ba jaian, baña goiz aldeko iruretan, an etorri ziran Polizia Militarrekoak gure billa kamioi bategaz. Sartu ginduzan ba kamioian eta barriro kanpamentura. Gu, lasai giñuzan, baña kanpamentura sartuaz batera, jua yakuzan lasaitasunak.

Koronelaren logela aurrean formauta geratu giñan, eta an geuazen ba 13 mutil "FIRMES", batzuk zuzenago eta besteak okerrago, ze barrua naiko bero geunkan danok eta.

Urten eban Koronelak eta diño:

—Nortzuk izan dira—.

Gu ixilik.

Koronelak barriro:

—Nortzuk izan dira, izan diranak, pauso bat aurrera emon daitela—.

Gu danok, ixilik eta geldik, baña norbaitek galdetu eutsan:

—Koronela, zuk diñozu ia nortzuk izan geran, baña guk ez dakigu zertaz berbetan zabizen—.

Koronelak orduan:

—Ez dakizuela ezer? Nortzuk izan dira erriko panaderuak alabakin oeratu diranak?

Ori entzutean, moskorra be golpian jua zan gure soñetik. Nik esan neutzan Koronelari:

—Koronela, gu ez gara izan, gu ez gara erri orretan egon, emendik bost kilometrotara dagoen erritxo aretan baño, eta gañera, Alkatean semearen bateoko jaian, Alkateak konbidautu egin gara.

Baña berak, ez euskun siñisten, eta guk gauza bardiña erantzuten geuntzan bere galderai. Askenian sargentu eta Kapittan bat bialdu eben geu egongiñan errira, bertako alkatearekin berba egitera, jakiteko ia egia zan guk esaten genduna.

Goizeko zaspirak ziran bueltan etorriziranean, eta Koronelari, alkateak guk esaten genduana baieztatu egin

ebala esan eutsan. Bittarte guztian, an egon giñan gu "FIRME" al genduan lez.

Koronelak orduan zigor lez, berandu eltzearren, kanpamentura, eta ez beste ezergaitik, bialdu giñuzan lorik egin barik, eta erresaka guztia soñian geunkala, kanpamentu guztia garbitzera.

Argittuko dautsuet "panaderuen" alaben asuntoa: Asieran esan dodan lez, soldadu geienak, kanpamentu beian egoen errira jua ziran. Soldau birek, panaderuaren alabakin arreman onak egin zituen, eta illundu zanian, an jua ziran "asgurak" kentzera panadeira, eta orretan ebizala, soldau batek, zigarrua biztutzeko posporua bistu eban, baiña ain une txarrian izan zan, neskaxoen aita, (panaderuak), ikusi egin eban panaderi barruan sua bistu zala eta bertara urreratu zan zer gertatzen zan ikustera, leiotik ikusi eban eta leiotik begiratuta be, zerbait ikusi eban baiña zer zanik ez, orduan barrura sartu zan eta barruan egozenak arrapatu zituan "saltza" gustian. ¡A izan zan nastea eta estutasun aldia!

Soldauek al eben lez, iges egin eben eta neskan gura-soak, alabak artu esku banetatik eta kanpamentura jua ziran esaten bere alabak soldau batzuk, "bortzatu" ebezalata.

Koronelak orduan, "retreta" joteko agindua emon eban danok kanpamentura bueltatzeko. Jua ziran ba jakin eben guztiak, eta formatuta gelditu ziran. Kontatu zituen danak eta 13 soldau falta. Izanbe geu giñan, da orduan geu egin genduezan errudun lez, eta guk ez genkien ezer, baiña geu falta giñan lez, ba guretzako "erregalo" guztia, geuk "ni arte ni parte" ezertan euki barik.

Urrutxe

'ERREKONDO'- LURDES BASTERRETXEA GOJENOLA

"ERREKONDO"

Hagin Berriak

Joxe Elixoste, egunero lantokira oinez joaten zen. Hiru bat kilometro harantza, beste hainbeste etxerantza.

Behin Juan Astapotxa farol eta guztik ira burkadarekin etxera zetorrela, Joxerekin bat egin zuen.

– **Gabon Juan** (ahoa ondo zabaldurik)

– **Bai Joxe, gabon. Bazatoz?**

– **Bai, banator eta poz pozik ganera.**

– **Zer ba?**

– **Gaur hagin barriak ipini eta... Altzau, al-tzau eizu farola** (Altxa, altxa egizu farola)

Han ibili omen zen Juan inspekzio lanetan, bere eritzia Joxeri ematen.

Ezagutu genuenok hagin ederrak izan zituela badakigu.

UMEAK ESNE HAGINA JAUSITAKOAN DENEI
ERAKUSTEN DIE ZAHARRAGOAK, BERRIAK
JARRITAKOAN.

Jose Elixosteren suertea

Beti esaten da gauza guztiei alderdi ona ikusi behar zaiela. Zoritxarrez denak ez dute hau horrela egiten.

Joxe hau bakarrik bizi zen. Behin erosketak egin eta bueltan zetorrela, laban egin eta lurrera jausi zan hanka apurtuaz.

Laguntzera hurbildu zen jendeak:

– **Hau de biharra egin dozune!**

Joxek:

– **Hau ezda ezebez** (Ezer ere ez)

– **Nik auki doten subertie!** (Nik eduki dudan suertea)

– **Hankiaz jo duten lekun buruaz jo banu?**

(Hankarekin jo dudan lekuan buruarekin jo banu?)

Euria

San Pedro egunez, mutil kuadrila bat plazatik etxera zihoala, Kanpetxa deritxon taberna aurrean etxeko jaunarekin kontu kontari gelditu ziren. Zerbeza basoa eskuan, iji eta aja barriketan. Iritxiak ematen, eskuak mugitzen, zerbeza jausiten eta berak...

– **Hau de eurixe bota!**

Morokil galdara

Anton eta Manuel bi anai xelebre. Igande batetan erromeriatik gosez etxera, biak elkarrekin, buruan gauza berdina zutelarik; Sukaldeko morokil galdaratik ekitzea hain zuzen.

Gaur bezalako konturik ez zen. Argia pizteko argia aurkitu behar.

Antonek (Zaharragoak) Manueli:

– **Ia Manuel, topau, topau argixe.**

Piztu zuenean, galdara aurkitu zuen baina galdarakorik ez.

MOROKILA: Artu-irin eta urarekin egindako janaria gero esnearekin naztatzeke.

Santa Eufemi

Orduan ere Santa Eufemi egunez bertara igoteko ohitura zen. Garai hartan kitarra jotzea debekatua zegoen.

Manueli jotzea asko gustatzen zitzaionez, jendeak eskatu eta horretan zegoela, aguazila etorri eta aurpegiko bat eman zion. Urrundu zenean...

– Ugaitzko errekan atrapauko baneuke, kitxarriaz burutik behera emongo neukixo eta aste betin belarritik burrunbadi urteten eukiko leuke!

(Ugaitzko errekan aarrapatuko banu, kitarrarekin burutik behera emongo nioke eta aste betean belarritik burrunbada ir-teten edukiko luke).

Gizon fina

Hiru lagun zubi ondoan basotik etxerakoan kontu-kontari daudela, hara non agertzen den gizon bat egarriak ondo kenduta, bere burua zuzen eraman ezinik.

Hiruretariko batek:

– **Ez neban pentsetan gizon hau hain fiñe zani-
nik?**

Besteak harrituta haren eritxiaz:

– **Zer ba?**

– **Egunero karga betekuaz dabilelako!**

Karga betekoa: – Mozkorra.

Eguzkia bueltaka

Oraintsu zubiko tabernan koadrila bat eztabaidan; Batek mundua dala bueltak ematen dituen eta eguzkia geldirik dagoena (Kontalari hau, erdalduna). Besteak ordea, ezin onartu hori horrela izan zitekeenik.

Azkenean ahoskopen berezidun batek diotzo:

– **¿Pero todavía estás así? ¿Entonces cómo vamos a subirla al alba y luego al alba?
¿Tu has visto alguna vez eso?**

Orduan ere besteak, que sí, que como es tan grande, el movimiento de rotación y traslación...

– **Ni lotación ni traslación, así no puede ser y punto.**

Gehiago be...

Hauetariko gehiago baziren, Joxe Altsu beraien artean.
Bere esana:

– **Mundua biribile? Leike! Baina... txapelan moduku!**

(Mundua borobila? Izan daiteke. Baina... Txapela moduko).

Mundua geldirik

Errupini berari gertatutakoa.

Umeek eskolan ikasitakoa gogoan hartzen dute. Egun haietan munduak zenbat buelta ematen duen ikasten egon ziren.

Arratsaldean sagasti malda atxurtzen zebilen aitonarengana hurbildu eta ikasitakoa kontatu zioten bi ilobek.

Aitonak:

– **Nork esan deusue hori?**

Umeek:

– **Maixuak.**

Aitonak:

– **Maixua hori erakusten? Nori sinistu eraitzeko?**

Umeek aurrera ikasitakoarekin... eta halako batetan

Aitonak:

– **Ikustozue hau zokil hau? (Lur moltso gogorra) Ba hori bixer be hortxe egongo da, eta mundu bueltaka balebil hantxe beko errekan egongo litzateke**

(Ikusten duzue hau zokil hau? Ba hori bihar ere hor egongo da, eta mundua bueltaka balebil han beheko errekan egongo litzateke)



Konfesatzen

Filipo ez zen eleiz gizona, Paskuetan ordea agertzen zen handik autortza eginez.

Behin eginkizun horretan zegoela prailearen galderak erantzuten...

Fraileak:

– **Zenbat urte ezkontuta?**

Filipok:

– **Hogei.**

Fraileak:

– **Zenbat seme alaba?**

Filipok:

– **Alaba bat.**

Fraileak:

– **Konturatzen zara zelako kaltea egiten zagozen etorkizunari?**

Ondo aprobetxatu izan bazendu denpora andrearekin, beste hiru-lau seme alaba izango zenuzun, eta nork daki baten bat fraile edo monja izango bazan ere? Ze ejemplo ona emango eutsen gizarteari?

Filipok:

– **Bai Jauna, sarri pentsaudot hori, hain ondo pentsau ze, beste alderdixe be ikusi dot. Beste hiru-lau eduki banitxu? eta neskak izan bali? pute galantak be izan laixexan eta horretxegaitik ez naiz atrebidu.**

Uraren beldur

Itsasoak badu zerbait miresgarria eta izugarria ere bai. Batez ere lehenengoz ikusten duenarentzat.

Itsasoa sekula ikusi bako bat etorri zen gure herrira eta ilusioz erakutsi genion Ondarroako itsas ertza.

Jaiak ziren, mariñel eguna hain zuzen. Urtero legez, gure kuadrilako batek txikira abiatu ginen. Kanpotarrak hiru-lau metro atzera egin zituen gizonezkoak barrura salto egiten ikusi zituenean, baina emakumeak ere gauza berdina egitean, naiz eta beldurrez egon haiek baino gutxiago ez zela eta berak ere gauza berdina egin zuen. Jarri eta esku biek in ban-kuari heldu ondoren ez zen beraiengandik libratu berriro lurra zapaldu arte. Orduan arnasa luze bat hartu eta lagunak egin-dako galdera erantzun zuen:

Lagunak:

– **¿Quetal?**

Berak:

– **Le ha sacado brillo al asiento.**

Kafeko atzea

Ez da oraindik denbora asko kafeko atzea barandarik gabe libre zegoela. Kamioi eta kotxe haundiak buelta hartzeko estu xamar ibiltzen zirelarik.

Herrian hiru-lau extremeño fameli bizi ziren. Senide batzuk bisitara etorri eta autobusez Ondarrura joatea pentsatu zuten. Lehenengo lerroan jartzea tokatu ere. Kafeko atzeko errebueltan ikusirik erreka azpi azpian zutela, salto egin eta atzeko puntara joan omen zen.

– **Que nos caemos al río! Que nos caemos al río!** ohiukatzen.

Aza handiak-lapiko haundiago

Batzuk gauza haundiak esaten ez dute neurrik. Behin horretariko batek berak ikusitakoak kontatzen...

– Ni Ameriketan ikusitxe najak ba aza baten azpiken lau mille ardi.

Entzuten egoan batek:

– **Azi itzela horrainok?**

Kontalariak:

– **Bai!**

eta bertan zegoen apaizak:

– **Bai izengo zuan (Izango zen) ze neube ikusita nago lapiko bateri asti errematxetan batek kanpotik baldarraz (mailoa) besteak barrutik: dinbi-danba, eta bata bestearen zaratarik entzun bez. (ere ez).**

Kontalariak:

– **zertarako hain lapiko haundixe?**

Apaizak:

– **Heuk esan hauan azi egosteko**

(Hik esan duan aza egosteko)

Karta jokuan taberna

Batak:

– **Nik ikusita daukat gizon bat paperaren ordez ehun pezetakuaz, zigarroa batu eta erretzen.**

Besteak:

– **Ba nik beste bat, pezeta maipa (mahaipera) jausi mille pezetakoari sua eman eta haxe tope-tan.**

(Huraxe topatzen)

Ameriketan

Gaur egun ia gehienak kotxeko karneta dute, kotxea ere askorek.

Gerra ostean ordea gutxik izango zuten honelakorik. Beraz, ofizio ona ikusten zuten txofertza.

Honelako komentarioak egiten ziarduen behin baten Ameriketan egondako batek...

Ameriketan egondakoak:

– **Txofer ikesteko egun bat sobre da. Egun erdixen erakusten dabe Ameriketan. Bidan modun erakutsi be. Han ikusten dabe zubi bat apurtute... Ba aidin paseten dabe.**

Hango batek:

– **Zelan paseten dabe ba?**

Ameriketan egondakoak:

– **Zelan pasakojuek ba. Bota atzatzaka, sartu larogeta hamar millan eta... TSU.**

Andereinuari mezua

Eskolan lanak bukatu ez eta etxerako lanekin umeak etxean agertu zirenean, aitonak, biharamonean anderenuari emateko aginduz, papera hartu eta hau idatzi omen zuen:

– **Señorita, con los niños menos cuento y más cuenta.**

MOTOR ZALEAK

Por Casualidad

Bazen fameli bat motor kontua asko gustatzen zitzaiona. Desmontatu, montatu eta konprobatu. Normalean lagunez inguratuak egoten ziren.

Behin batean HARLEY-ari sidekarra kendu, tripak atera eta sartu ondoren lanaren emaitzak ikustera Ondarruruntz hartu hartu zuten, Askartzege igotzen aprobatzeko. Tontorrean frenatzen hasita justu justuan hartu homen zuten errebueltan.

Lagunengana hurbildutzean:

- **Da, zelan? Zenbat sakatu deutzazue?**

Beraiek:

- **Ba ez ga agertu Sametisko errekan ;POR CASUALIDAD!**

(Sametisko erreka; kurba azpian dagoen erreka)

Litro bat gasolina

Aste osoan motorra konpontzen ibili ondoren, igandean probatzeko asmotan, libro bat gasolina bota ondoren, auzoko gazteak martxan jartzeko sakaka hasi ziren. Motorrak 50 metrotara egin zuen lehenengo tiroa, 100 metrotara bigarrena eta handik laster hirugarrena, arrankatzea lortu gabe. Motorista jeitsi, tapoia zabaldu eta hutsik zegoela ikusirik:

- **Tilun litlu! Tilun litlu!**

(Tiroan litroa, tiroan litroa)

Aste osoan hau ikusteko eta minutu batean dena bukatzeko.

Gizona falta

Beste behin gure motor zalea (Gorra eta bizkorra), atzean laguna hartuz Markinara joan zen. (Bueltan etxeratu zenean, atzean laguna falta zuela konturatu zen.

- **Mekauen la puta.**

Bidean galdu zuelakoan azkar atera zen haren bila, eta hara non aurkitzen duen bestea lasai-lasai Markinan bertan.

Berak:

- **Pero hombre, qué haces?**

Lagunak:


- **Si no te he subido yo. Si no me has dado tiempo a subir.**

Txoferra ez zen konturatu atzekoa motor gainean jarri ez zenik eta gorra izanean, naiz eta bide osoan barriketan etorri,

ez zuen behar lagunaren erantzunik. Beraz nola pentsatu ez
etorrenik?

Herrian laister zabaldu zen motordunak atzean zeraman
gizona galdu zuela.

ESKERRIK ASKO, PEDRO, JUAN, JOSEBA, JOSE
ANDRES, FERNANDO, JOSE LUIS ETA LAGUNDU
DIDAZUEN GUZTIOI



"TRIKITRAKEUE" - ANA URKIZA IBAIBARRIAGA

EZIZENA: Trikitrakeue

Aretxek artu ei eban sentimentu andixe (1)

Ba ei ziran, munduan asko bezala, aizpa bi baserriondo baten, bata erdi gaixo, koittadua. Batean obeto, bestean in-kesaka botatzen ei zituan egunak.

Goize batez, aizpa gaixoak baltzak ikusi bearrean (2) eta urten eban besteak medikuarengana edo parean egoanaren bila.

Buelta egin ebanean medikuagaz, baserriondoan auzoko jendea besterik ez eban ikusi eta ara non jakiten daben aizpa il dala.

Aizparen oe albora joan eta zera esan eban:

– Ai txikiñe, errezenak eizuz, zeñek pagako dotsulakun ba enterru eta jiri-birak? (3)

(1) Arek artu ei eban pena andia.

(2) balltzak ikusi bir= min andiz, estu-estu egotea

(3) Ai maitea, errazena egin dosu, zeinek ordainduko deusulakoan enterrua eta jira-birak (=gainontzeko gastuak).

Erdara ona

Joan ei ziran ondarrutar bi Frantzira eta jantoki batetan sartu ei ziran. An ibili ziran berbetan ondarrutarrez, mundu guztiak entzuteko bezalako aotsak atereaz, au-dala-ta-beste-a-dala-ta...

Kamareroak galdetu eutsenian zer gura eben, "un vino y una cerveza" erantzun ei eban batek eta kamareroak arrituta, zera esan eutsoen:

– ¡Qué bien hablan ustedes el castellano! (1)

(1) Tabernako jendeak, ondarrutarrak berbetan entzutean, erbestearrak zirala pentsatu eben inglesak-edo... eta gazteleraz eskatu ebenian, erbestearrak izateko ondo berba egiten ebela esan eutsoen.

Frantzesen ulermena

Ondarrutar bi Frantzira joan ei ziran eta bat burusoila zanez, otz ikaragarria edo obe esanda, aguanta ezina ei eukan.

Alako batean, otzari geiago ezin aguantatu ta, txapel denda batetara sartzea pentsatu eben lagunok. Sartu ziran eta andereño bat urreratu ta:

– Monsieur? Qu'est que vous voulez? –galdetu eutsoen andreñoak–.

–E... txapela, una txapela, le txapelé! –esaten eutson burusoila zan ondarrutarrak, eskuakin burua erakutsiz eta zeinuak eginaz–.

Andereñoak ez eban ulertzen eta beste bateri deitu eutson. Baina arek be bardin:

– Monsieur? Qu'est que vous voulez?

– Txapela, txapela, le txapelé!

Bigarrenak be ez eutsoen tutik ulertzen eta irugarrenaren bila joan ziranean... txapelaren bila dendan sartu zanak, egundoko uskarra bota eban eta besteak, erdi lotsatuta, zera esan ei eutsan:

– Txo, lotsatu be ezaz etxen! Zelan asi zeinke amen buskar botaten ! (1)

– Bai zea, oxe da preokupaziñoi, txapela ez badabe ulertzen zer dan, OXE ulertukotzue! (2)

(2) Bai zera, orixe da kezka, txapela ez badabe ulertzen zer da, orixe ulertuko deusue!

Dotrina jakin behar

"Gure Jauna" lehen aldiz hartzeko zen mutiko bati abadeak, igande aurreko galderetxo batzuk egitea pentsatu zuen eta...

– Esango al didazu nor izan zen Jesusen ama? –abadeak galdera–.

–?

– Esan ba, nor izan zen Jesusen aita –abadeak–.

–?

– Ez al dakizu ba Jesus nongo erregea izan zen? –galdetu zion azkenik abadeak nekaturik–.

– Ene ba, mutiko –esan zion azkenik–, zure aitarekin seriozki hitzegin beharko dut, hau ez bait da posible.

Abagune txikiena izan zuenerako, abadeak mutikoaren aita bilatu eta gertaturikoa den-dena kontatu zion:

– Harrigarria izan zen! Haseran, urduri egongo zela pentsatu nuen, Jesusen ama nor izan zen edo Jesus ea nongo erregea izan genuen galdetu nionean, baina, baina, baina, azkenean, ezer ez zekiela ohartu nintzen. Pentsa ezazu (eskuak burura eramanez), ez jakitearren, ez zekiela Jesukristo gurutzean hil zutenik ere.

– Hil da ala? Noiz egon da gaisorik ba? –galdetu zion aita abadeari–.

Jenarito eta Garro

Jenaro Etxebarria eta Isidoro Ibaibarriaga aari topeka zaleitsuak ziran. Garai aretan, Azpeitia-Azkoitia inguruan egiten ziran proba geienak.

Bi lagunon aaria JENARITO zan eta kontra egingo eutsena, GARRO.

Etorri zan Azpeitiako eguna eta tratua egiteko orduan, azpeitiarrak zera esan ei eutsen Isidorori:

– Gure aariak, Urolako trena topekada bategaz, TAK, gelditu egiten dau.

Isidoro eta Jenaro entzun eta entzun egon ziran azpeitiarraren aaria zein ona zan eta aspertuta, Isidorok bere gipuzkoarrez esan ei eutsan.


– Hara, geuri be da ez da motz gelditzen. Zuk entzutea edukiko duzu nola ingelesek urakanen eta zikloien parte zelan ematen daben. Ba gure Jenarito eroaten dogu barra musturrera ta emoten deusn topekariagaz, itsosua bare-bare jarten dau.

Ele-Ele

Aintzina ez dala, Katalanak ei ziran Ondarrura etorteko, euskaldunon antzerako problemez berba egitera eta Felipe Egigurenek, oitura eban legez, mitina egin ondoren eta bere

ele-ele (1) erremediatu eziñik, ondoko au esan ei eban Zubi Barrian, pregonero lez:

–Bixal, egueldixan, katalanak datoz! Danok Zubi-Balile! Zal eta gazte! Lapikuk eleten badiz, ELE! Danok esan, Visca Catalunya, Visca!



(1) ele-ele, erre ezin eban esan. Erreren ordeaz, ele ipinten eban.

Abastos

Lena Ondarrura Abastos-ekoak etortzen ei ziran (=haziendakoak zerga kobratzera).

Bein batez, Boluneko tailerrera joan ei ziran ia tailerra kondizio onetan egoan ikustera eta baita ia zergak ondo ordaintzen ebezan edo ez galdetzera.

Tailerrera sartu ziranean, orri zuria artu eta idazten asi ei ziran: "au ez dago ondo", "beste ori ez dago ondo", etab. ainbat aitzaki atereaz. Eta gure Leon gero eta beroago.

Artu ei eban makila andi bat eta urreratu ei zan. Abastos-ekoak "bibote errik" (1) eta argal-argalak ei ziran.

Eskuan makila zeukala, urreratu eta esan ei eban:

– Primero, los de Réquete, después los de Zénete (2) y ahora, urteten ez badosue (eskuan makila ebala), los de Jódete (3).

Pikamailo andia artuta esan ei eutsoen eta danak arin-aringa bialdu.

(1) bibote errik = bibote erreak (erdaldunai, indar gutxiko jendeari edo inpertinentetzat dogun jendea deitzeko era despektiboa).

(2) Réquete =reketeak, Zénete = CNI-koak.

(3) Jódete = ilko zaituet, artuko dosue merezi dosuena.

Polkarenak (I)

Bein zera esan ei eban:

"Se hase saber... al pueblo de Ondárroa... que un señor de fueraaaa..., un señor de fueraaaa,... ha perdidooooo... una pluma... una plumaaa... estilo-Afrika! (1)

Polkarenak (II)

Beste baten, pregoi au emon ei eban:

"Gauuuuur, andra batek, galdu dauz sostenak! Topaten dabenak, neuri ekarti! (1)

Polkarenak (III)

Beste pregoi bat:

"Gauuuuur, andrai esan biar gakoe, aurrekuk ondo sujeteateko (1), itxosutik bendabala datorrela eta! (2)

(1) estilográfica.

(1) Gaur andre batek sostenak galdu ditu, topatzen dituenak, neri ekariezazkidala.

(1) balkoietako lore ontziak esan nahi zuen baina jendearen malizia handiagoea, denez egia baino, sostenak edo bularrak ulertzen ziren, hain zuzen ere, itxasotik gizonak etxera zetoztelako.

(2) Gaur, andrei esan behar zaie, aurrekoak ondo eusteko, itsasotik bendabala dator eta!

Zine Alamedako kontuak

Zine Alamedan egoan atezainari itaundu ei eutsan erdal-dun batek:

– ¿Hace mucho que ha empezado la función? –beran-
duegi egin eta pelikulak merezi ote zuan jakin naian–.

Eta atezainak erantzun.

– No, hase un tato (1)

Erdaldunari barrea atera bear eta atezainak, aserreak baino
lotsak geiago eginda, eskua luzaturik, zera erantzun ei eu-
tson:

– BUR! LAMADRE! (2)

(1) hase un tato = pelikularen zatitxo bat galdu dabela esan
nai eutsan.

(2) bur! lamadre! = búrlate de tu madre.

Matxinplaka aguazilla

Matxinplaka aguazilla zala, bodegak zuluak eukiten ebe-
zan katuak sartu-urtenean ibilteko.

Juan Jose, Angel eta Elun kuadrillan ei ziran zidol-zido-
lak (jai guztiak eurak antolatzen ei ebezan) euran asmakizu-
nagaz. Eta bein pentsatu ei eben Matxinplakari zeozar egi-
tea.

Musika banda kalerik-kale atera zanean, amen ei dator
banda eta Matxinplaka atze-atzeka oinez, banda dirijitzen eta
jentea baztertzen.

Tataratatzun-tatzun-tatzun-tatzun, tataratatzun-tatzun-ta-
tzun-tatzun...

Alako batean, bodega batetik bestera pita ipiñi eta
Matxinplaka pasatueran ten egin eta "musturrez aurrera"
jausi ei zan eta bere atzetik banda guztia.

Aguazilla altza zanean, esan ei eban:

– Amendixeik ixan da, amendixeik! (1) –bodegako zu-
lota zuzenduta atzamarra–.

Ta bodegako zulotik aurpegia sartu ei eban ikusteko ba-
rruan zer egoan eta barrukoak pikamillo andiaz jo ta sur
"takote" andia baltzituta laga ei eutsen.

(1) Amendik izan da, amendik!

Seigarren mandamendua

Andra bat konfesatzera joan zan eta asi ei zan:

– Ave María Purísima!

– Sin pecado concebida, María Santísima. Ia ba, pekatutuok andratxu –itaundu eutson abadeak–.

– Lenengoku...

– Pasa –andreak–.

– Irugarrena...

Ta:

– Pasa, pasa... –erantzunten eban andreak–

Seigarrena eldu ei zan eta:

– Da? Seigarrenin zelan gauzak?

– Zelan? –andreak–. Ba, buztan kolatxua bakarrik salba gazta ba! Otzaran ortze daz sakristixan albu!

Arrain saltzailea zan andrea eta orixe esan ei eutson!

Molestiak

Zera! Batzuk dana inori eskatu bear deutse. Inor moles-tako leuke batzuk...

Duela gutxi, auzoko batek zera eskatu ei eutson emakume bati:

– Zu, etorriko zaz bixkatin? (1)

– Zeta? –esan eutsan besteak– (2)

– Izarak tolesten laguntzea!

– Zu, neuk be bakarrik etxen dotxuaz! –erantzun ei eutsan– (3)

– Andixak diz bañe! –azaldu ei eban bere burua lenengoak– (4) .

– Zu, zeuk ez dosu pentsako anaxik eta neuk kuman lo etxen douenik, ez da? –emon ei eutsan azken erantzuntzat bigarrenak aurpegi guztiz, bestela ez ebalá amaituko ikusita– (5) .

(1) etorriko zara apur baten?

(2) Zertara?

(3) neuk be bakarrik egiten dodaz.

(4) andiak diraz baña!

(5) zeuk ez dosu pentsatuko anaiak eta nik kuman (=seaskan) lo egiten dogunik, ez da?

Iloba andaluzak

Gure herriko aitona bati, alaba andaluz batekin ezkondu omen zitzaion eta noski, hauen seme-alabak, ANDALUZAK!

Beren herritik Ondarroa bisitatzeraz etorri zirenean, amak aitonarekin utzi zituen umeak eta azken honek, zer gutxiago egingo zuen, bere ilobei herria erakustea baino?

– "Zirin poto hutsak bañe umik! (1) eta hori balitz bakarrik"!

"Egke-cí" eta "pogke no" zela, aitonak ezin umeei "tutik" (2) ulertu.

Herritik zehar ibilalditxoaz egin, eternitatea bera baino luzeagoa iruditu bera eta etxera igotzeko ere astirik gabe, aitonak, kalean zegoen lekutik, garrasi hotsean zera esan zion alabari (balkoira begira):

– Nati! Natiiii!!! Hartu honek (umeei bultz eginez) un ves sí, no más! (3)

(1) Umeak zirinak oso.

(2) deus, ezer.

(3) Itzulpena: behin harrapatu nauzu baina ez bitgarrenez.

Etxe barria

Senide andaluzak eukiteak zer egiten daben!

– ¿Qué abuelo, no vas a cambiar de casa? –galdetzen ei eutsen gure ondarrutarrari, etxe barrira pasatzeko ustetan edo gurak eraginda edo...

– No, yo no –esaten ei eutsen–. Yo no cambio mi casa ni por chiquita (1).

– Pero en vez de empezar con obras en esta casa, es mejor que se compre una nueva.

"erain beti morokil zarrari" (2) pentsatzen ei eban eta azkenean, egunero kanta bera entzuten aspertuta nonbait, maian ukabilkada gogor bat eman eta au esan ei eban:

– "Amendik enule! onek etxik dakar, pie casa, pie calle"! (3)

Auek ziran etxeari billatzen eutsozan komodidadeak.

(1) ezegaitik.

(2) eragin beti gauza beerati.

(3) Itzulpena: "ontxe etxin, onxe ikalin" (=emendik ez noala! etxe onek dauka, etxean eta batera kalean egoteko aukera!).

Zorretan dabiltzanak

Errentarik ordaintzen ez zuen gizon bat etxetik kanpora bota omen zuten eta jakina denez, etxebarruko guztiak jakitun zeuden gertakizunaz. Antza zenez, etxeko errentaz gain, gizononek bazuen beste zorrik hortik zehar nonbait eta etxea utzi ta aste betera gutxi gora behera, ondo jantzitako karpeta-dun gizon bat etxebarruan sartu eta kanporatutako gizonaren etxe ohian atea joka hasi omen zen, zorrak kobra asmoz.

Aldamenean bizi zenak, dena ikusi zuen baina karpeta-dun gizona aspertuta laister joango zela pentsaturik, ez zion inongo jaramonik egin.

Halere, karpeta-dun gizonak, norbaitek erantzun behar ziola pentsatuta, ez zion atea jotzeari uzten eta auzokoak azkenean, asperturik, atea ireki eta zera esan omen zion.

— Ahí, nunca jamás viviré (1) .

(1) Itzulpena: etxe hartatik joana zenez, ez zela gehiago itzuliko esan nahi izan zion.

Tokirik ez

Jose Mari Arrate lagun askoko gizona zan. Bein Madrilera joan zan eta emendik zear txanpan saltzen ibiltzen zan biaiante bat billatu ei eban an, eta:

— ¡Hombre, tú por aquí! —agurtu ei eban Madrilen billatutakoak—

— ¡Pues sí! —erantzun Jose Marik—.

Alkar agurtu ondoren, buelta bat emotera joan ziran bi lagunak alkarri kontuak esateko, au zala eta bestea zala, ta gero, agur esateko ordua ailegatu zanean, Madrilen geratu bear ebanak esan ei eutsan: .

— Emon gorantziak daneri, fulanori, menganori, sultanori,... (ixildu ere ez ei zan egin madrildarra ondarrutarren izenak aipatzen).

Ta Jose Mari Arratek zera erantzun ei eutson:

— Ene ba, bixotz bixotzetik sentiuten dot bañe orretarakoxe bai ez daukadala tokirik. Bete-beteta daukadaz inguru guztik gorantzixakin. Ez dakat zurkulo bat bera bez beste batenak eruateko. On, ori bai, txanpan botillaik edo badaukazu, poz-pozik eruango deutsuaz (1) .

(1) Ene ba, biotz biotzetik sentitzen dot baina orretarakoxe bai ez daukadala tokirik. Bete-beteta daukadaz inguru guztiak gorantziakin. Ez daukat lekugune bat bera bez beste batenak eramateko. Ori, bai, txanpan botillarik badaukazu, pozarren eramango deutsuaz.

Txinuak eta indioak

Txinuantzako dirua batzen ei ebizan Ondarrun eta "Indixu deitzen deusagun gizonak, dirurik ez patrikaran eta paparrean pegatina ipiñi eutsenian, zera galdetu ei eban:

- Ze, zeñentzako zabize diru eskatzen ba?
- Txinuntzako -erantzun-.
- Bueno, bueno... Txinuai ez gakoe allako. Indixuai emon, indixuai, Ondarrun bat da bakarrik eta! -erantzunda laga ei zituan-.

Zorrik geien non?

Juan Jose "kojuk" esan ei eban:

- Ezetz jakin, Ondarrun zorrik geien non dagoan.
- Eta batak:
- Kofradian ez dakit zeinek desfalkoa egin ebana.
- Eta besteak:
- Ez dakit zeinek baserria ondatu ei eban jokoan ibiltze-arren...
 - Ez an bez.
- Urrengoak.
- Fulano eta Benganoren txalupak ere ez ei dabilta ondo eta...
 - Ez, an bez. Ai, zuek kaxkajo aluok! -esan ei eutsen Juan Josek lagunai erdi aserretuta-.
 - Ontxe be onek izorrako gaitu -esaten asi ei ziran lagunak-.

- Zorrik geien non egongo da ba -Juan Josek-.

Mojetan!

- Zelan, zorrik geien mojetan? -lagunek-.
- Bai! Asi Sor Beatriz, Sor Gabriela, Sor...

Tafallako kontuak

Andra kuadrilla andi bat Tafallara joan ziran eta kalera urten eben batean, andra batek esan ei eban.

- Ene, an karteru! Oye cartero majo, ven aquí! -eskatu ei eutsan bi bidar pentsatu barik-.

Eta karteroak.

- ¿Qué me pide usted señora? ¿Qué quiere de mí?

Eta emakumeak:

- Ay, hijo mío, no sabes dónde tengo yo al marido, en Algesiras, hijo mío, en Algesiras!

- Lejos le tiene usted -erantzun ei eutsan karteroak andreak esaten eutsana sinistuta-.

Andre onek gizona Ortizenean zeukan lanean.

- ¿Sabe lo que me escribió a mí, mi marido? -segitu eban andreak karteruarekin ondo pasatzeko gogoz- Lávate con humo que te lo como! -aurpegi tristea ipiñita lenengo baña gero, bueltadura eman eta segitu eban- Ja, jai, ¿qué se pensó aquél pues? Y yo a la vuelta en el correo te dije. "Desde que me he cambiado a tutú todos andan menos tú". Hala, a freir churros ahora!.

Andrea aztu

Gizon bat, emaztearekin ei zihoan Donostira erosketak egitera eta bidean, kotxea Deban aparkatu eta kafetxo bat hartzeko asmoz gelditu omen ziren. Kafea hartu eta gero, andrea komunean sartu zen eta bitartean, gizona tabernatik irten, kotxea hartu eta Donostira joan zen.

Donosti barruan sartzean, bere buruari esan omen zion:

– Zertara etorri naiz ni Donostira? –eta apur batetan pentsatzen egon ondoren, gogoratu omen zen–. Erosketak egitera!

Buruari helduta, orduantxe konturatu omen zen, emaztea Deban utzi zuela.

Kakañan

Ondarruko BBV-en gertatua libretoa dala ta ez dala:

– Txo! Neu be bana bai, neuri tokatekun kotxi te erregaluk! (1)

– Zeatzik ez ba? Suerti suerte... (2).

– Bai zea, Españi guztin de gero... norberak jakin bez napi (=mazpi) zelaku dan be ta norberai toka? Oxe be... bana neu bai... (3) .

– Beatu ie! esan ezkeo egunin kartilli dakarren guztixetatik lauri kokota kenduko dotsela, zu te ni, kakañan! (4) .

(1) Neu be banago bai, niri tokatzekotan kótxea ta opariak!

(2) Zergaitik ez ba? Suuertia suerte...

(3) Bai zera, Espainia guztian da gero... Norberak jakin ere ez mapa nolakoa dan be ta norberari tokatu? Ori be... ez nago ni ortara...

(4) Begiratu ba! esan ezkeo egunean kartilla daukaten guztietatik laureri kokota kenduko deutsela, zu ta ni, ipurdia non galduko!

Indar zuriak

Ondarrutar batek Canarias-en pasatu ebazan oporrak eta etxera etortzerakoan, erregaluak eroatera joan zan denda andi batera. Erosketa andiak egin zituanenez, dendariak opari bat emon eutsan:

– Koño! –esan eban– Indar zuri pakete ederra!

Lapikokoa jaten oituta eta zalea zanez, urrengo egunean bertan lapikoa ipiñi eta jatea pentsatu eban. Esan ta izan, lapikoa sutan ipiñi eta ondartzara joan zan.

Ondartzatik buelta egin ebanean, pozarren begiratu ei eutsan lapikoari tapa altzatuta baina an ez eban ura besterik topatu. Bein eta berriz, emon eutsan urari koilararekin buelta ta buelta, baña an ez zan indarrrik agertzen.

Bero-bero eginda, "ni corto, ni perezoso", dendara bueltatu zan eta dendariari onela esan ei eutson:

– ¿Qué? He puesto en el puchero alubias y venir de playa y ¡nada! En el puchero nada de alubias. ¡Qué pasa!

Dendariak ez zekian zertaz ari zan gizona:

– Qué me dice señor? –galdetu eutson–.

– Las alubias que me regalaron ayer –berriro gizonak–.

Orduan, dendariak aurreko eguna gogoratu ta zera esan eutson:

– No señor, no eran alubias, que eran garrafiñadas!

Zelan erantzun?

Penalti aurrean, erriko "tirri-tarri" besterik ikusi nai ez eban ondarrutar bateri, erbestetik etorritako batek zera itaundu ei eutsan:

– Oiga, buen hombre, ¿para ir a Lequeitio?

"Kastillanu, arraxu" (1)

Gauzak latz. "Axe zan izerdixe ta bitse" (2) . Azka amen, azka an, batera ta bestera begiratu, prakak gora, prakak bera, eskua okotzera lenengo eta burura gero, agiñei kirixk egin... galdera astuna benetan.

"Lekeitiora nundik joaten dan itaundu deust ba..." esaten eban bere baitan, ulertu, ulertzen eban itauna, baina zelan erantzun?

Ta asi ei zan:

– Pues... (alamedarantz eskua altzatu eta...) porraquí... e... aldatza, mucho errebueitas... pero (kamiñazpirantz begiratuta) porrahí, todo cuatro-cuatro! (3)

Azalpen au emanda, kafetxo bat artzera joan ei zan lasai-lasai.

(1) erdalduna, madarikatua.

(2) A zan izerdia ta bisa (=aparra).

(3) Itzulpena: lau-lau (=lau-laua).

¿De donde venimos?

Eguneroko lanak eskatzen zuenez, itsasoan jardunean omen zenbiltzan arrantzaleak. Halako batean, erlojua gelditu zitzaiela konturatu ziren eta...

– Para motorrak! (1) –deiar dar egin omen zuen kapitainak–.

Motorrak gelditu eta noraezean denbora asko igaro gabe, beste itsasontziren bat ikusi zuten eta kapitainak ordua galdetzeko asmoa hartu zuen. Halaxe jakin arazi zien marinelei eta itsasontziari hurbiltzen uzteko esan gainera. Kapitainaren semeak, ikusirik bere aitak erdararik tutuk ez zekiela, zera esan zion:

– Aitte, neuk galdetuko deutset...

Baina aitak, kapitaina bera izan eta, harroa nonbait, "TXO" esan eta begirada mehatxakorrez, txistik egiteko betarik utzi gabe, brankan jarri eta ordurako hurbildu zen itsasontzikoak agurtu ondoren zera galdetu zien:

– Euup! ¿De dónde venimos? –galdetu zien ordua jakin nahirik–.

Semeak eskuak begietara eraman zituen lotsaturik.

– ¡Usted sabrá! –erantzun zioten besteek eta aurrerantz egin zuten–.

Han gelditu zen gure kapitaina aho bete hortzez, baina noraezean zegoen txalupakoek zerbait jakin nahi eta...

– Zer? Zer esan deusue ba? –galdetzen zuten–.

– Koño! Arek eurak be eztakixe! (2) –erantzun zien kapitainak–.

(1) Gelditu motorrak.

Ondarrutarrak Mutrikuarrekin

Ondarrutar eta mutrikuarren artean sarri gertatu izan dan lez, bikote gazte bat ezkondu ei zan Ondarruko Andra Mari elizan, neska ondarrutarra eta mutila mutrikuarra.

Emazte gaztea aurdun gelditu zanean, gizona Ondarrura etorri ei zan, neskaren izebaren etxera, mandaturen bat egi-tera.

Eta izebak, mutrikuar gazteari zera itaundu eutsan:

– Zer? Zelan da ba gure "Mari koxkor"? (1) –izebak–

– Zer? Zein da ba "Mari koxkor"? –mutrikuarrak, izebak zer esan nahi zion antzeman ezinik–.

– Zeure andri beintzat! –izebak erantzun–.

– Ze koxkor? Amildu (2) ein da ala koskorrak irtetzeko? Noiz amildu da ba?

– Ai txikiñe! Zeuk jakingo dosu noiz peatsazun (3) !

Mutilak, ezer ulertu gabe, zera erantzun zion neskaren izebari.

– Izeba, geixo ez nator Ondarrura! Ez do zuei ulertzeko-rik eta!

(1) Mari koskor = aurdun dagoena. Koxkor = sabela.

(3) Ai maitia! Zeuk jakingo dosu noiz egin duzuen larrutan!

Potru gorabera

Bitxori zerbitzaria zan eta ugazabak esain ei eutsan:

– Vitoria, vete a la carnicería y tráeme criadillas que voy a poner rebozado.

Ta bera, bidean zear, "criadillas, criadillas, criadillas" esaten joan ei zan baña arategira eldu ta, aztu. Orduan, Peli karnizeruari galdetu ei eutsan:

– Zu, Peli, gure señoirik zer eruaten dau rebozateko?

– Ba garunak edo, guntzurrunak edo? –erantzun bestea–

– Ez, bixkat kolore feoko batzuk (1) –galdetu barriro Bitxori–.

– A, potru, ixango di! (2)

– Ze esateostasu? –Bitxorik arrituta– Orrek berbok ez deustaxun esan!

– Zer esango deusut ba? Olantxenik deitzen gakoe ta? –erantzun Pelik– Esaizu señoiriai potruk dakazela eta ia nai daben!

Orduan Bitxori Klaranera joan zan telefonoz deitzeko asmoz:

– Klara, deitxu neike telefonutik? (3) –galdetu eutson Klarari–.

– Bai, –erantzun eutson Klarak–.

– Eske, señoiriai mandatu emon biar deusat eta...

– Zer esan biar deusatu ba? –galdetu Klarak–.

(1) kolore itsusiko batzuk.

(2) potruak izango dira.

(3) deitu al neike telefonotik.

– Ene ba, zuri be esan ein bikotzut, auxe da dakatena! –lotsatuta–. Señoiriai esan bitzat e, Pelik esastala potruk dakazela! (4).

– Esaizu emakumi, entendiukotzu te! (5)

Deitu ei eutsan señoiriai ta...

– Señoira, Peli me ha dicho que tiene potros!

– ¡Cómo que potros! –arrituta ugazabak–. Pero ¿Qué es eso?

Bitxori gero eta urduriago eta bere barnetik pentsatu ei eban. "Ezkondute bazaz e, jakingo zu zertzuk dizen" (6).

Eta erantzun ei eutsan:

– ¡Pues, eso que tienen los hombres colgando!

Ume erdaldunei errieta

Ume zaintzan zegoan emakume ondarrutar batek zera esan ei eutsan zaintzeko zeukan ume zirinpotuari:

–Habla más callando!

(4) Zuri be esan egin bearko deusut, auxe da daudadana! Señoiriai esan bear deusut, Pelik esan deustala Potruak dauka zala!

(5) ulertuko deusatu eta!

(6) Ezkonduta bazagoz, jakingo dosu zertzuk diran.

Medikunean

– Entzutea daukadanez, ardauak bizitza mozten dabela esaten dabe medikuek.

– Bai, arrazoi andia da ori. Ni neu konturatuta nago, edan gabeko egunak luzeagoak dirala.

Semik goxin goxa (1)

– Zu! –esan eutson lagun bata besteari– Olako seme nausixe eukiteko e, goxa ezkonduko zīñan, ez? (2)

– Bai –erantzun besteak–. Goxeko zazpiretan! (3)

-
- (1) semak goizean goiz.
(2) olako seme nagusia eedukitzeko, goiza ezkonduko zīñan, ez?
(3) (...) Goizeko zazpiretan!

Goikalin

Andra kuadrilla batetan, bata gertakizun barregarriak kontatu nai eta olaxe asi ei zan:

– Zu, konta neike?

– Berdi bada ez –erantzun batek– (1)

– Ez da, berde-berdi be ez da, e?

– Konta, konta! –beste guztiak ao batez–.

– Ala, ba on kontatea nu –esan ei eban– (2).

– Kontaxun ba! –eskatu ei eban lenengo ezetz esanda-koak, danak danetara ere esamesanak entzuteko gogoz irrikitzen–.

Eta asi ei zan:

– Ba goikalin pasataku de! (3)

– Goikalin? Ontxe be zuk esan! –batek, gezurretan dabil-lakoan– (4).

– Ez, egixe da, e? ¡Como hay Dios! Ba, zan gizon bat, ez noa izenik ematera, e? Zeuek errepa baik! (5). Bizi zan goikalin eta almorranak eukazan. Ta bein andreak esan eutsan medikuarengana joateko.

– Gizona, nai badosu lagunduko deusut baña orrek gau-zok medikun aurrin de... (6) –esan eutsan emazteak–.

– Laga andri, bakarrik jungo na ta! (7) –gizonak–.

Joan zan eta bueltan...

– Andri, ez dakizu zer esan deustan!

-
- (1) berdea bada ez.
(2) ba on kontatzera noa.
(3) ba goikalean pasatua da.
(5) egia da (...) Zeuek igarri barik!
(6) (...) medikuaren aurrean...
(7) laga andrea, bakarrik joango naiz eta!

– Zer esan deutsu ba?
 – Zer esan deustan? Errentexa juteko eta ganaruk kaka nun egiten daben, antxe arraskateko (8) . Ze bisturiñe gero be badala egitea eta lenengo egiteko aprobi (9) .

Joan zan Errenterira izerditan:

– Amen, amen kaka munto ederra! –esan eban gizonak lenengoa ikusi ebanean–.

Baja ebazan prakak eta...

– Gizon! Gixon! Or ez! –entzun eban–.

– Aiba la ostra, nundik ikusi nabe, inor ez bada amen? –esan eban albotara begira–.

Altza prakak eta beste kaka muntura joan zan baña an be:

– Gixon, or bez! –esan eutsen–.

– Mekauen la puñeta, amen bez? –arrituta eta leku guztitara begira esaten eban, erdi asarratuta–. Ba nik non edo non egin bear dot ba, ze medikuari esan bear deutsat eta.

Eta irugarren kaka muntoan:

– Diar nai badosue eta nai ez badosue, amentxe! –esan eta RI-RA– prakak bajatu eta egin ei eban egin bear zuana eta...– Ene! Ene barata! Esan be egin eban Don Jose Marik bañe amen gauza gogorra pasa da!

Egin bearrak amaituta goikalera joan zan eta etxera eldu-takoan, andriari esan eutsan:

– Ai andri, ez dakizu, gauza gogorra pasa gazta niri amen, pausoik be ezin eginde, nik dakaten paraderu! (10) . Ena gauze, ixetako be ena gauze! (11) .Ikusixun zer dakaten, ia errementa ero zer egin den! (12) .

(8) Errenterira joateko eta beiak kaka non egiten daben, antxe arraskatzeko.

(9) bisturia gero ere badala eta lenengo egiteko aproba.

(10) (...) pausorik be ezin eginda, nik dakartan itxura!

(11) Ez naz gauza, ezertako be ez naz gauza!

– Gixona! –deiadar egin eutson andreak– Arrautza bixak txoritxako tranpiatz dakazuz atrapata! (13) .

Jose Motela

Jose Motela zaurituta egon zan Donostiko ospitalean eta Ondarrura etorri zanean bere abenturak kontaten asi eta auxe esan ei eban:


– A, iñor ez ta Donostiko opittalea alla bañe, nik mora biaz eindot lo, mora biaz(1) .

– Mora biaz: –itaundu eutsoen berekin egoazanak– Eta aita be parean egoanez, aitarean aurean azalpenak argi ta garbi emon bear da, zeraesan ei eban:

– Aitte! Oiko mora bi!

(13) Gizona! (...) Barrabila biak txoritako tranpeagaz daukazuz arrapatuta!

(1) inor ez da Donostiko ospitalera eldu baña, nik almoada bigaz egin dot lo, almoada bigaz.



AURKIBIDEA

Orrialdea

Idaz sariketarako deia.

Epai maikoen irizpidea.

Irakurleei	Augustin Zubikarai	9
------------------	--------------------	---

Sarituen lanak

“Lengus”	Antonio Arrizabalaga	11
----------------	----------------------	----

“Estanga”	Joxe Mari Urteaga	37
-----------------	-------------------	----

“Urrutxe”	Josu Solabarrieta	63
-----------------	-------------------	----

“Errekondo”	Lurdes Basterretxea	81
-------------------	---------------------	----

“Trikitrakeue”	Ana Urkiza	95
----------------------	------------	----